

AURKIBIDEA

Martxoaren 30ean, PAZKO GAUBEILA	5
Martxoaren 31n, PAZKO IGANDEA	36
Apirilaren 7an, II. PAZKO IGANDEA.....	43
Apirilaren 14an, III. PAZKO IGANDEA	51
Apirilaren 21ean, IV. PAZKO IGANDEA.....	58
Apirilaren 28an, V. PAZKO IGANDEA.....	65
Maiatzaren 5ean, VI. PAZKO IGANDEA.....	73
Maiatzaren 12an, JAUNAREN IGOKUNDEA	81
Maiatzaren 19an, PENTEKOSTE IGANDEA.....	90
ERANSKINAK.....	99

Martxoaren 30ean, gauean
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO GAUBEILA

Aurten sua elizaren atzealdean egitea komeni da, bertara apaiza eta laguntzaileak bakarrik joanez. Fededunak, bakoitza bere tokian gera daiteke, zutik atzera begira jarriz. Honela kanpoan eginda ilunpetan eta elkarren gainean elizara sartzea saihestu daiteke.

I. ARGIAREN LITURGIA EDO GAUBEILAREN HASIERA

Jauna zuekin.

℟. Eta zure espirituarekin.

Gero, apaizak berak, oharpena egingo du:

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna heriotzatik bizira igaro deneko Gau santu honetan, Elizak dei egiten die munduan zabaldurik dauden bere seme-alabei elkartzera eta otoitzean erne egotera. Horrela, Jaunaren hitza entzunez eta sakramentuak hartuz Jaunaren Paz-koa elkartean ospatzen badugu, izango dugu itxaropen, harekin batean menperatuko dugula heriotza eta harekin biziko garela, Jainkoagan.

Jarraian sua bedeinkatuko du, esanez:

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, zeure Semearen bitartez

eman diguzu fededunoi zeure suaren argia;

bedeinka ✠ ezazu su berri hau,

eta egizu, pazko-jai hauetan zerutar gauzetarako suturik,

irits gaitzela arima garbiz betiko argiaren jaietara.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Su berria bedeinkatu ondoren, laguntzaile batek apaizari aurrean jarriko dio pazko-zuzia. Apaizak eztenxo batekin gurutzea markatuko du argizarian. Gero, gurutzearen gainean «Alpha» eta azpian «Omega» hizki grekoak egingo ditu; eta gurutzearen lau besoetan, gauden urteko lau zenbakiak, esanez:

Kristo atzo eta gaur;
Hasiera eta Helmuga;
Alpha eta Omega.
Harenak dira egunak eta mendeen mendeak.
Berari ospea eta erregetza
gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Bost intsentsu-alea ezar ditzake, hau esanez

Bere zauri santu
eta dohatsuen bitartez,
gorde gaitzala
eta zaindu
Kristo Jaunak. ✠. Amen.

Eta su berriarekin Pazko-zuzia piztuko du esanez:

Aintzaz piztu den Kristoren argiak
uxa ditzala gogo-bihotzetako ilunak.

Batzar-buruak hiru aldiz kantatuko du “Kristoren argia”: lehenengo sutondoan, bigarren elizaren erdialdean, hirugarren aldarearen oinetan herriari begira. Hirugarren aldiz kantatzen duenean elizako argiak piztuko dira. Pazko zuria anboiaren ondoan ipiniko da. Han egongo da Pentekoste egunean ponte-ondora eramán arte.

Pazko-deia

Apaizak lurrin-ontzian intsentsua bota eta liburua eta pazko-zuzia lurrinduko ditu. Ondoren, Pazko-deia kantatzen du anboitik.

Pazko-deia bukatuta adierazi eliztarrei eskuetako kandelak itzal ditzatela.

II. HITZAREN LITURGIA

Apaizak berak, denei esertzeko esanez oharpen hau egingo du:

Senide maiteok: Pazko-dei ospetsua entzunez hasiak gara Jaunaren piztueraren gau santua ospatzen. Entzun dezagun orain gogoeta-giroan Jainkoaren hitza. Ikus dezagun nola salbatu zuen gure Jainkoak lehenengo aldietan bere herria, eta azkenak diren aldi hauetan nola bidali digun bere Semea salbatzaile. Eta egin dezagun otoitz, Jainko gure Jaunak gugan bete dezan pazko-misterioan hasi zuen salbamen-egintza hau.

Ondoren, Itun Zaharreko irakurgaiak egingo dira. Irakurgaia, salmoa eta otoitza. Ematen diren Irakurgaietatik, bat edo beste utzi daiteke. Halere, saiatu hiru gutxienez aukeratzeko, Irteera liburukoa sekula utzi gabe.

Lehenengo irakurgaia (*Has 1, 1 – 2, 2*) [kakotx] artekoa utz daiteke.

Hasiera liburutik

Hasieran Jainkoak zeru-lurrak egin zituen. [Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gainean ilunpea. Eta Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia». Eta izan zen argia. Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunpetik. Argiari «eguna» ezarri zion izena, eta ilunpeari «gaua». Eta arrats eta goiz: lehenengo eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Izan bedi sabaia uren artean, goiko eta beheko urak bereiz ditzan». Eta hala izan zen. Jainkoak sabaia egin zuen eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen. Sabaiari «zerua» ezarri zion izena. Eta arrats eta goiz: bigarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Bil bitez zeru azpiko urak leku bakar batean eta ager bedi lehorra». Eta hala izan zen. Lehorrari «lurra» ezarri zion izena, eta ur-multzoari «itsasoa». Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak.

Jainkoak esan zuen: «Eman beza lurra landaretza: hazidun landareak eta zuhaitzak, bakoitzak dagokion fruitua, hazi eta guzti, ekarriko dutenak». Eta hala izan zen. Lurra eman zuen landaretza: hazidun landareak, bakoitza dagokion haziarekin, eta fruitua ekarriko duten zuhaitzak, bakoitza dagokion haziarekin. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta arrats eta goiz: hirugarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Izan bitez argizagiak zeru-sabaian, eguna eta gaua bereizteko, eta jaiak, egunak eta urteak adierazteko; distira bezate zeru-sabaian, lurrari argi egiteko». Eta hala izan zen. Bi argizagi handi egin zituen Jainkoak: handiena egunaren nagusi jartzeko, eta txikiena gauaren nagusi, eta izarrak ere egin zituen. Eta Jainkoak zeru-sabaian ipini zituen, lurrari argi egiteko, egunaren eta gauaren nagusi jartzeko eta argia eta ilunpea bereizteko. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta arrats eta goiz: laugarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Egin bezate urek borbor bizidunez, eta egin bezate hegan hegaztiak lurraren gainean, airean». Eta Jainkoak arrain tzarrak egin zituen eta uretan borbor dabiltzan mota guztietako bizidunak eta mota guztietako hegaztiak. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak, ugaritu eta bete itsasoko urak; ugari bitez hegaztiak ere lurraren gainean». Eta arrats eta goiz: bosgarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Sor bitza lurra mota guztietako bizidunak: abereak, narrastiak eta piztiak». Eta hala izan zen. Jainkoak mota guztietako piztiak, abereak eta narrastiak egin zituen. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.]

Eta Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak». Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. [Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atseden hartu zuen.]

Erantzun-salmoa (Sal/ 104 [103], 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 13-14ab. 24 eta 35c)

Zu - re ar-na - sa bi - dal gu-ga - na ta lur-a-za - la be
 rri - tu, Jau - na. Zu - -rri - tu, Jau - na.



- √. Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna!
 Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
 Distiraz eta handitasunez zaude **jan**tzia,
 argiz inguratua, soinekoz **be**zala. ✕.
- √. Sendo ezarri zenu**en** lurra
 eta ez da sekula koloka **egon**go.
 Ozeanoz estali zenuen soinekoz **be**zala,
 eta urek azpian hartu zituzten **men**diak. ✕.
- √. Ibaiak sorrarazten dituzu iturri**et**atik,
 eta mendi artean doaz isur**ri**an.
 Ur-bazterretan bizi dira zeruko heg**az**tiak,
 hosto artean **kan**tari. ✕.
- √. Zeure goi-geletatik dituzu mendiak **ure**ztatzen,
 zeure biltegieta**ko** emaitzez lurra **ase**tzen.
 Abereentzat ernearazten duzu **be**larra,
 lanerako animalien**tzat** bazka. ✕.
- √. Bai ugariak, Jauna, Zuk **egin**ak!
 Denak jakinduriaz egin **ditu**zu,
 zure sorkariz betea dago **lur**ra.
 Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna! ✕.

Otoitza

Egin dezagun otoitza.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 gauza guztiak harrigarriro sortu dituzu;
 egizu, Zuk salbatutako gizon-emakumeek ikus dezatela,
 aldi guztien hasieran mundua sortzea harrigarria izan bazen,

are harrigarriagoa dela
 azken aldietan Kristo gure Pazkoak
 eskainitako bere buruaren oparia.
 Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Edota, gizakiaren sortzeaz:

Egin dezagun otoitz.
 Gizakia harrigarriro egin
 eta modu harrigarriagoan salbatu duzun Jainkoa,
 emaguzu bekatuaren liluramenduari zentzu onez gogor egitea,
 betiko pozetara irits gaitezten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Bigarren irakurgai (*Has 22, 1-18*) [*kakotx*] *artekoa utz daiteke*

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jainkoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskainiezadazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

[Jaiki zen Abraham goizean goiz, txalmatu zuen astoa eta, erre-oparitako egurra txikiturik, Jainkoak esandako lekura joan zen, bi morroiekin eta bere seme Isaakekin. Hirugarren egunean, begiak jasorik, lekua ikusi zuen urrutira, eta esan zien morroiei: «Gelditu hemen astoarekin. Mutikoa eta biok haraino goaz, Jainkoa gurtzera. Ondoren, hona itzuliko gara».

Hartu zuen Abrahamek erre-oparitako egurra eta Isaak bere semeari bizkarreratu zion; berak sua eta aiztoa zeramatzan. Biak batera zihoazela, Isaakek esan zion bere aita Abrahami: «Aita!» «Zer duzu, seme?», erantzun zion hark. Eta semeak: «Sua eta egurra

baditugu; baina non da oparitako bildotsa?» Abrahamek erantzun zion: «Jainkoak eratuko digu oparitako bildotsa, seme». Eta biak batera zihoazen.]

Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, [Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu; gero, bere seme Isaac lotu eta aldarean egur-pila gainean ipini zuen.] Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparitzat eskaini zuen semearen orde. [Abrahamek leku hari «Jaunak du hornitzen» ezarri zion izena, eta gaur egun ere hala dio jendeak: «Mendian Jaunak du hornitzen».]

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengo bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

Erantzun-salmoa (Sal 15, 5 eta 8. 9-10. 11)





∞. Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure **edontzia**,
zure esku dago nire **zorria**.
Begi aurrean dut Jauna **etengabe**;
hura eskuinean dudala, ez naiteke **dardara**. ∞.

∞. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **erriaiak**,
atsedenean lasai **gorputza**.
Ez baituzu nire bizia Herio-leizera **egotziko**,
ezta ere zeure fededuna hilobian galtzen **utziko**. ∞.

∞. Bizirako bidea erakutsiko **didazu**;
alaitasunez beteko nauzu zeure **aurrean**,
zorionez betiko zeure **ondoan**. ∞.

Otoitza

Oi Jainko, fededunen Aita gorena,
zure seme-alaba ordezkotzaren grazia isuriz,
lur guztian ugaltzen dituzu
Zuk hitzemaña hartuko duten seme-alabak,
eta, Bataioko pazko-sakramentuaren bidez,
herri guztien aita egin duzu Abraham zeure zerbitzaria,
Zeuk agindu bezala;
egizu, arren, zure herriak
erantzun diezaiola behar bezala zure deiari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ∞. Amen.

Hirugarren irakurgaia (Ir 14, 15—-15, 1a)

Irteera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren tartean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoan zabaldutako lehorbidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrengandik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek

estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

[Irakurgai honen bukaeran ez da "Jaunak esana" esango].

Erantzun-salmoa (*Ir 15, 1-2. 3-4. 5-6. 17-185, 5 eta 8. 9-10. 11*)

Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
 tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

∇. Jaunari diot kantatzen, ‘
 garaipen handia lortu duelako,
 zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako. ‘
 Jauna dut indar eta kemen, hura neure salbamen.
 Hura dut neure Jainkoa: gorespen hari,
 neure aitaren Jainkoa: goraipatua izan bedi. ∇.



- ✠. Gudari da Jauna, '
 Jauna du hark izena.
 Itsasoan hondoratu ditu '
 Faraoiaren gurdiak eta gudariak,
 Itsaso Gorrian amildu
 haren buruzagirik aukerarkoenak. ℞.
- ✠. Ur handiek estali zituzten,
 harria bezala hondora joan ziren.
 Zure eskuina, Jauna, biziki indarsua,
 zure eskuinak, Jauna, xehatzen du etsaia. ℞.
- ✠. Sarrarazi duzu zeure herria '
 eta zeure mendian landatu, zeure ondarean,
 zeure egoitza egin duzun tokian, Jauna,
 zeure eskuz, Jauna, eraiki duzun santutegian.
 Jauna errege da betidanik betidaino. ℞.

Otoitza

Egin dezagun otoitza.

Oi Jainko, gure egunotan ere ikusten dugu
 argitsu berritzen dituzula lehengo zeure mirariak;
 aldi hartan, herri bakar bat Faraoiaren menpetik askatuz
 erakutsi zenuen zeure indarra;
 orain, herri guztiak salbatzen dituzu,
 Bataioko uretan zehar igarotzean bizi berria emanaz;
 egizu, mundu guztiko herriak irits daitezela
 Abrahamen seme-alaba eta Israel berri izatera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Edota:

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko,

Itun Berriaren argiaz argitu dituzu Itun Zaharreko mirariak,
eta horrela Itsaso Gorria

Bataioko iturriaren irudizat hartzen dugu,

eta Egiptotik askaturiko judu-herria

kristau-herriaren irudizat;

egizu, gizon-emakume guztiak,

sinesmenari esker, Israel bezala hautatuak izanik,

zure Espirituaren bitartez bizi berrira etor daitezela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Laugarren irakurgaia (*Is 54, 5-14*)

Isaias profetaren liburutik

Zure egileak bere emaztetzat hartuko zaitu:

haren izena Jaun ahalguztiduna;

Israelen Jainko santua da zure askatzailea,

lur osoaren Jainko deritza.

Emakume baztertu eta atsekabetuari bezala

dei egiten dizu Jaunak berriro,

gaztetako emazte zapuztuari bezala –dio zure Jainkoak–.

Apur batez baztertu zintudan;

baina maitasun handiz bilduko zaitut berriro.

Haserrealdi batean, unetxo batez gorde nizun aurpegia;

baina betiko maitasunaz errukitu natzaizu,

dio Jaunak, zure askatzaileak.

Noeren egunetan bezala izango da Niretzat:

zin egin nuen orduan

uholdeak ez zuela aurrerantzean lurrik estaliko,
 eta halaxe egiten dut zin orain ez natzaizula berriz haserretuko,
 ez dizudala aurrerantzean mehatxurik egingo.
 Mendiak beren lekutik aldendu eta muinoak koloka egonik ere,
 nire maitasuna ez da zugandik aldentuko,
 nire bake-ituna ez da koloka egongo,
 honela dio maite zaituen Jaunak.

Zorigaiztokoa zu, Jerusalem, ekaitzak astindua,
 inork kontsolatu gabea!

Malakitazko oinarri gainean eraikiko zaitut,
 zafirozko zimendu gainean ezarriko;
 dorreak errubiz eta atek esmeraldaz egingo dizkizut,
 harribitxiz harresi guztiak.

Zure seme-alabak Jaunaren ikasle izango dira
 eta bake osoan biziko.

Justizian oinarrituko zara sendo.
 Zapalkuntzatik urruti egongo zara
 eta ez zara ezeren beldur izango,
 ikara ez zaizu inoiz hurbilduko.

Erantzun-salmoa (Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
 ak biz - ten di - tu.



- ✠. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
 etsaiei nire lepotik pozten utzi ez diezulako.
 Jauna, Herio-leizetik atera nauzu,
 zulora jaistear nengoela biziberritu. ✠.
- ✠. Kanta Jaunari, haren fededunok, '
 goretzazue, haren santutasuna gogoratuz.
 Une baterako da haren haserrea, '
 bizi guztirako haren onginahia.
 Arratsean negarra da gurean,
 poz-oihua goizean. ✠.
- ✠. Entzun, Jauna, eta erruki nitaz,
 izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
 Negarra dantza bihurtu didazu,
 Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti. ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zure izenaren aintzarako, ugari itzazu
 gure fede-gurasoei agindu zenizkien ondorengoak
 eta hazi zeure seme-alaba ordekotzat aukeratuen taldea,
 zure Elizak ikus dezan, oraintxedanik betetzen ari dela
 antzinako arbasoek zalantzarik gabe itxaro zutena.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bosgarren irakurgai (Is 55, 1-11)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Egarri zareten guztiok, zatozte ur bila,
etorri, dirurik ez duzuenok ere;
erosi garia eta jan ordaindu gabe, erosi ardoa eta esnea hutsean.
Zergatik gastatu dirua, goserik utziko zaituzten janaritan,
eta lansaria, aseko ez zaituzten gauzatan?
Entzun Niri arretaz, eta ondo jango duzue,
janari gozo mamitsuz elikatuko zarete.

Etorri Nigana eta egon adi,
entzudazue eta biziko zarete.
Betiko ituna egingo dut zuekin,
Davidi eginiko maitasunezko agintzariari leial eutsiz.
Herrirentzako testigu jarri nuen David,
nazioen buruzagi eta agintari.
Ezagutzen ez zenuen herriari egingo diozu dei,
eta ezagutzen ez zintuen herria lasterka etorriko da zugana,
Jaunagatik, zure Jainkoagatik,
ospe jantzi zaituen Israelgo Santuagatik.

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean;
hots egiozue, hurbil dagoen bitartean.
Utz beza gaiztoak bere bidea,
gaizkileak bere asmo txarrak;
itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu,
gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.
Nire asmoak ez dir v a zuenak bezalakoak,
ezta zuen jokabidea ere nirea bezalakoa –dio Jaunak–.
Nola zerua lurraren gainetik garai,
hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik,
nire asmoak zuen asmoen gainetik.

Euria eta elurra zerutik jaisten dira
 eta ez dira berriro hara itzultzen,
 lurra ase, ernaldtu eta ernamuindu gabe,
 ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan;
 hala egingo du nire ahotik ateratako hitzak ere:
 ez da Nigana hutsik itzuliko,
 baizik eta egingo du Nik nahi dudana
 eta beteko Nik ezarritako helburua».

Erantzun-salmoa (Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)



Hartu - ko du - gu u - rapo - zik, o - sa - su - na - ren i - tu - rri - tik.



- ∞. Jainkoa dut sal**bat**zaile!
 Badut uste on eta ez **naiz** beldur,
 Jauna baitut indar **eta** kemen,
 hura neure **salbamen**. R.
- ∞. Aterako duzue ura pozik '
 salbamenaren iturri**etatik**.
 «Eskerrak Jaunari, egin dei haren **izenari**,
 iragarri haren egintzak **herriei**,
 aldarrikatu zein bikaina den haren **izena**. R.
- ∞. Kanta Jaunari, bikain jokat**tu** baitu,
 jakin bezate honen berri mundu **o**soan.
 Egin poz-irrintzi eta oiuhu, Siongo bizi**la**gunok,
 handikiro ari baita zuen alde Israelgo **Santua**». R.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 munduaren itxaropen bakarra,

profeten ahoz erakutsi dituzu aldez aurretik,
 orain betetzen diren misterioak;

indartu bihotz onez zeure herriaren salbaziorako gogoia,
 fededunak ez baitezake zure graziarik gabe
 onbidean aurrera egin.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Seigarren irakurgaia (*Ba 3, 9-15. 32—4, 4*)

Baruk Profetaren liburutik

Aditu, Israel, bizira daramaten aginduak,
 entzun, zuhurtasuna ikasteko.

Zer dela eta, Israel, zer dela-eta zaude etsaien lurraldean,
 lurralde arrotzean zahartzen?

Zer dela-eta hildakoekin kutsaturik,
 Herio-leizean daudenen parekotzat emana?

Utzi egin duzu jakinduriaren iturria!

Jainkoaren bideari jarraitu izan bazenio,
 bakean biziko zinatekeen betiko.

Ikasi non dagoen zuhurtasuna, non indarra eta zentzu ona,
 eta jakingo duzu era berean

non dagoen bizitza luzea eta benetako bizia,
 non, gidatuko zaituen argia eta bakea.

Nork aurkitu du jakinduriaren bizilekua?

Nor iritsi da haren altxorretaraino?

Dena dakien Jainkoak ezagutzen du jakinduria,
 bere adimenaz aztertzen du.

Hark eratu du lurra betiko eta lauoineko abereez bete;
 argiari joateko agindu, eta joan egiten da,
 deitu, eta hark esana egiten ikaraz.
 Izarrek ere distira egiten dute
 beren zaintza-postuetan, pozez beterik;
 deitzen ditu, eta «Hemen gaituzu» erantzuten diote,
 eta pozik distiratzen beren Egilearentzat.

Hura da gure Jainkoa, ez da beste inor hura bezalakorik.
 Hark aurkitu ditu jakintzaren bide guztiak,
 eta bere zerbitzari Jakobi erakutsi dizkio,
 hain maite duen Israel herriari.

Gero, munduan agertu zen jakinduria
 eta gizakien artean bizi izan zen.
 Jainkoaren aginduen liburua da jakinduria,
 betiko irauten duen legea;
 hura gordetzen dutenak bizira doaz,
 bazterrera uzten dutenak heriotzara.

Onartu berriro jakinduria, Jakob en herri,
 zabilta haren argiaren distiran.
 Ez utzi besteri zeure aintza,
 ezta jende arrotzari ere zeure duintasuna.
 Zorionekoak gu, Israel, Jainkoari atsegin zer zaion dakigunok.

Erantzun-salmoa (*Sal* 19 [18], 8-9. 10-11)





- ∞. Jaunaren legea bikain, barrena arnas**er**ritzen du;
 Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur **eg**iten du.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri;
 Jaunaren agindua distiratsu, begien **arg**igarri. ∞.
- ∞. Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor **bet**iko,
 Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bid**ezko.
 Urrea, urre araztua baino desiragar**ar**riago,
 ezti, ezti berria baino go**zo**ago. ∞.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, gizon-emakume guztiei sinestera dei eginez
 zeure Eliza beti handiago egiten diharduzu,
 zaindu itzazu onez zeure babespean
 Bataioko uraz garbitu dituzunak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ∞. Amen.

Zazpigarren irakurgaia (Ez 36, 16-17a. 18-28)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela hitz egin zidan Jaunak: «Gizaseme! Israel herriak, bere lurraldean bizi zenean, kutsatu egin zuen lurralde bere jokabide eta egintza txarrez. Orduan, haien gainera isuri nuen neure sumina, lurraldean odola isuri eta idolatriaz kutsatu zutelako. Atzerriko nazioetan eta lurraldeetan sakabanatu nituen. Beren jokabide eta egintza txarren arabera epaitu nituen. Eta nazio haietara iritsi zirenean ere, nire izen santua belztu zuten, jendea hau esatera bultzatuz: “Jaunaren herria dira, eta haren lurraldetik irten egin behar

izan dute”. Orduan, nire izen santua garbitu nahi izan nuen, belztu egin baitzuen Israel herriak, egon zen nazioetan.

Esaiozu, beraz, Israel herriari: Hau dio Jaunak: “Ez dut hau zuengatik, israeldarrongatik, egiten, baizik eta zuek egon zareten nazioetan belztu duzuen nire izen santuagatik. Santu agertuko dut neure izen handia, nazioetan kutsatua dagoena, haien artean zuek kutsatu duzuen nire izena. Eta zuen bidez haien aurrean santu agertuko naizenean, orduan jakingo dute nazio haiek Ni naizela Jauna –dio Jainko Jaunak–.

Nazioen artetik hartuko zaituztet, lurralde guztietatik bilduko eta zeuen lurraldera ekarriko. Ur garbiz zipriztinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete; zeuen kutsadura eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet.

Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango. Neure espiritua ipiniko dut zuengan, eta gai egingo zaituztet nire legeen arabera ibiltzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko. Zuen arbasoei eman nien lurraldean biziko zarete; nire herri izango zarete zuek, eta Ni zuen Jainko”».

Erantzun-salmoa (Sal 50, 12-13. 14-15. 18-19)

The image shows two staves of musical notation in G major. The first staff is in 3/4 time and contains the melody for the first line of the hymn. The second staff is in 3/4 time and contains the melody for the second line. The lyrics are written below the notes.

Bi-hotz gar-bi - a gu-gan sor - tu, ar-nas biz-ko -
 rra bar-ne mui-ne - tan e - ma - gu - zu.



- ✠. Jainkoaren egarri naiz, Jainko biziaren egarri:
 noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?
 Gogoan dut, nola joaten nintzen tenplura, Jainkoaren etxera,
 poz-oihuz eta goraka, jai-giroan, jendetzarekin batera. ✠.
- ✠. Bidal zeure argia eta egia, gida nazatela, ‘
 eta eraman zure mendi santura, zure bizilekura.
 Eta iritsiko naiz Jainkoaren aldarera,
 neure poz betea dudana Jainkoagana.
 Zitaraz goretsiko zaitut, Jainkoa, ene Jainkoa. ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitza.

Oi Jainko, indar aldaezina eta argi ilunezina,
 begira bihotz onez misterio harrigarria den Eliza osoari
 eta, betidanik nahi izan duzun bezala,
 berri ezazu bakean
 gizon-emakume guztien salbamen-egintza;
 mundu guztiak ezagut dezala eta aitortu gauza miragarri hau:
 eroria zegoena altxatu egin duzula,
 zaharra berriztatu eta dena bere betera eraman,
 diren guztien hasiera den
 Kristo zure Seme eta gure Jaunari esker.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Egin dezagun otoitza.

Oi Jainko, pazko-misterioa ospatzeko
 Itun Zaharreko eta Berriko irakurgetan eskolatzen gaituzu;

egizu, ezagut dezagula zure errukia,
 orain hartzen ditugun dohainek sendo dezaten guban
 geroako eskuratzeko itxaropena.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Itun zaharreko irakurgaiak bukatzean Aintza kantatuko da. Une honetan piztuko dira aldareko kandelak eta joko dira dorreko kanpaiak nahiz elizako txilinak.

Aintza zeruetan

Testamentu Zaharretik salbamen-historiaren zenbait aldi ezagutu ondoren, orain Testamentu Berrira igarotzean, kanta dezagun pozez Aintza Zeruetan.

Otoitza

Oi Jainko,
 Jaunaren piztueraren distiraz argitzen duzu gau santu hau;
 susper ezazu zeure eliz elkartean seme-alabatzako espiritua;
 gorputz-arimaz berriztaturik,
 bete-betea izan gaitezen zure zerbitzari.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Epistola (*Erm 6, 3-11*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo

gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Epistola irakurritakoan, guztiak zutik daudela, apaizak –edota, hala behar izanez gero, salmolari batek– Alleluia kantatuko du jaineratsu, eta gero guztiak abestuko dute berriro.

Gero, abeslariak salmoa abestuko du, herriak tarteka Aleluia erantzunez.

Ebanjelio aurreko oharpena

Iritsi da gau honetako mezua hotsegiteko garaia: Jesus piztu da. Hau da historia osoa berritzen duen egia. Guztiontzat bizitza dakarren mezua da. Horregatik, Aleluia abestuko dugu. Aurrena apaizak bakarrik kantatuko du eta gero guztiok errepikatuko dugu.

Aleluia (Sal 117, 1-2. 16bc-17. 22-23)





- ✠. Eskerrak Jaunari, ona baita,
 haren maitasuna betikoa baita.
 Esan bezate israeldarrek:
 haren maitasuna betikoa. ✠.
- ✠. «Jaunaren eskuinak indarrez jokatu du,
 Jaunaren eskuina guztiz garaia da».
- Ez naiz hilko, ez, bizi baizik,
 Jaunaren egintzak kontatatzeko. ✠.
- ✠. Etxegileek baztertutako harria
 giltzarri gertatu da.
 Jaunak egin du hori,
 gure begien harrigarri. ✠.

Ebanjelioa (Mk 16, 1-7)

Homiliarako argibideak

GURE AURRETIK DOA

Irakurgaiak

Zazpi irakurgaien aukeraketa batek Jainkoaren ekintza bikainaren garapen historikora joateko aukera ematen digu. Kristoren piztuera da kreazioaren gailurra. Haren argiak kreazio osoa argitzen du, gizateriaren bizitza argitzen du batez ere, gure bizitza pertsonala, eta bere benetako zentzua ematen dio gure bizitzako une bakoitzari. Pazko gaua bataio gaua da. Erromatarrei zuzendutako gutunaren zatiak salbazio- eta berpizte-ikuspegi horretan kokatzen du bataioa. Kristo berpiztua da gure bizitzaren erdigunea, gure bihotzaren itxaropen handia. Fedeagatik, liturgiaren bidez, bihotza piztueraren munduan dugu.

Mezua

Jesusen piztuera Jainkoak gurekin duen ontasunaren eta maitasunaren adierazpen handia da, Jainkoak bekatuaren eta heriotzaren gain duen garaipen garbia, mundu honetako gaitz guztien gainean. Horrexegatik da, halaber, Jainkoaren ontasuna justifika dadin, ezinbesteko gakoa bizitza ulertzeko eta bere egian bizi ahal izateko, Jainkoaren jakinduriaren eta probidentziaren arabera. Gaizkiaren arazoari ematen zaion erantzun handia da, sinesgaitzak hainbeste larritzen baititu. Jesusen piztuera kontuan hartu gabe bizitzari begiratzea mundua gau itxian ikustea bezalakoa da, eguna zain egon gabe. Jesus berpiztua da munduko eguzkia. Haren piztuera betiko biziaren egunsentia da, sorkuntza osoaren justifikazioa, gure itxaropenaren oinarria. Hilobi hutsa eta Jaun Berpiztuaren agerpenak Jesusen piztueraren egiaren zeinu historiko handiak dira. Ez dago arrazoirik ebanjelarien testigantza horien zalantza egiteko.

Bizitzarako iradokizunak

Gaur gaueko Eukaristia Jesusen piztueraren argiari begira jartzea bezalakoa da. Jesusen piztueran eta gurean gure fedea indartzeko unea da. Bataioa argitasunez berritzeko garaia. Gure bizitza desitxuratzen duten eta gure esperantza itzali eta bihotzaren poza hiltzen duten ideia mundutar faltsuak berrikusi eta zuzentzeko ordua da. Piztuera sinestea justiziaren oinarria da eta gaizkiaren tentazioen aurkako defentsarik onena. Fedez gaude Jesusen hilobi hutsaren aurrean. Aingeruak Jesusen piztuera iragartzen digu eta «Ez izan beldur» esaten digu. Jaun piztua zuekin dabil betiko aintzara iritsi arte. Fede hori barne-indarra da, gure bizitzaren benetako gakoa. Itxaropen horrekin munduaren morrontzatik askatzen gara, eta egintza onak egiteko askatasuna lortzen dugu.

III. BATAIOAREN LITURGIA

Bataio-harria dagoen tokian, baina Bataiorik ez denean erabiltzeko lagungarria da hau. Bataiorik bada Meza-liburuan eta Bataioko Ohikune liburuan datozenak begiratu.

Senide maiteok: Eska diezaiogun Jainko Aita ahalguztidu-nari isur dezala bere grazia bataio-iturri honetara, ur hone-tatik bizi berrira jaioko direnak Kristogan zure seme-alabaordeko egin daitezzen.

Santuen letaniak: *Meza liburuko 301-303. orrialdeetan.*

Bataio-harria aldare ondoan ez dagoenean, Santuen letaniak kantatu bitartean egingo da bertara gerturatzeko prozesioa, Pazko-zuzia daramana aurretik doala.

Ponteko ura bedeinkatu aurretik

Orain apaizak ur berria bedeinkatu eta sagaratuko du. Ur horretan zehar igaro ginen gu ilunpeetatik –bekatutik- argitara, hau da, santutasunera. Horixe izan zen gure pazkoa, eta Jesusen Pazkoan parte hartzea.

Bedeinkapen otoitza

Oi Jainko, gauza harrigarriak egiten dituzu sakramentuetan zeure indar ezkutuaz,
eta era askotan erabili izan duzu ura
Bataioko grazia guri adierazteko.

Oi Jainko, munduaren hasieratik
zure Espiritua bazebilen ur gainean,
ordutik har zezan urak santutzeko indarra.

Oi Jainko, uholde handiko uren bidez erakutsi zenigun,
bizi berria ematen digun Bataio bera izango zela
bekatuaren bukaera eta izaera berriaren hasiera.

Oi Jainko, Abrahamen ondorengoak, Itsaso Gorrian zehar,
oinik busti gabe eraman zenituen,
Faraoiaren menpetik ateratako herria
bataiatuen familiaren irudi izan zedin.

Oi Jainko,
Joanek zure Semea Jordan ibaian bataiatu zuenean,
Espiritu Santuaz gantzutu zenuen;
gurutzean zegoela, ura eta odola isuri zituen bere saihetsetik,
eta, piztu ondoren, hau agindu zien bere ikasleei:
«Zoazte eta egin herri guztiak nire ikasle,
Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz».

Begira orain zeure Elizari eta ireki iezaiozu bataio-iturria;
har beza ur honek Espiritu Santuagandik
zure Seme bakarraren grazia,
gizakia, zure irudiko egina,
Bataioko sakramentuaren bidez
izaera zaharreko kutsu guztietatik garbituta,
uretik eta Espiritu Santuagandik biziera berrira jaio dadin.

Jaits bedi, Jauna, zure Semearen bidez,
ur honetara Espiritu Santuaren indarra,
Bataioan Kristorekin hil eta hobiratuak,
harekin piztu daitezen bizirako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bataioko aginduak berritzea

Une honetan, Pazko-zuzitik kandelak piztuko dituzte berriz eliztarrek.

Senide maiteok: Pazko-misterioaren bidez Kristorekin hil eta
hobiratuak izan gara, harekin biziera berrian bizi gaitezen.

Horregatik, Garizumako ekitaldia bukaturik, berriro ditzagun Bataio santuan agindutakoak, Satani eta haren egiteei uko egin baikenien, eta Jainkoaren zerbitzari leial izango ginela agindu Eliza santu katolikoan.

Uko egiten al diozue Satani?

℟. Bai, uko egiten diot.

Eta haren egite guztiei?

℟. Bai, uko egiten diot.

Eta haren bekatu-bide guztiei?

℟. Bai, uko egiten diot.

Sinesten al duzue Jaungoiko Aita ahalguztiduna, zeru-lurren Egilea?

℟. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Haren Seme bakar Jesu Kristo, gure Jauna, Maria Birjinagandik jaioa, oinazetan hila eta hobiratua, hilen artetik piztua eta Aitaren eskuinaldean jarririk dagoena?

℟. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Espiritu Santua, Eliza santu eta katolikoa, santuen elkertasuna, bekatuen barkamena, haragiaren piztuera eta betiko bizitza?

℟. Bai, sinesten dut.

Jaungoiko ahalguztidunak, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak, uraren eta Espiritu Santuaren bitartez jaiotza berria eta bekatuen barkamena eman dizkigunak, gorde gaitzala, Kristo gure Jaunagan, betiko bizirako.

℟. Amen.

Bataioko urez zirtatzea

Bataioko uretatik igaro eta Kristorekin betiko piztu ginela gogoratzuz, ur bedeinkatuz zirtatu eta bustiko gaitu apaizak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rr-i ho - nen oi-hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatua desegin duenari eska diezaiogun, kristau guztiak izan daitezela leialak gau santu honetan berritutako bataioko hitzekin. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz Elizaren seme-alabak urez eta Espiritu Santuaz berriztatu dituenari eska diezaiogun, sendo ditzala beraiengan Pazko honetan eman dizkigun dohainak. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz ilunpean bizi zirenei erreinuko atea ireki dizkienei eta gizakiari bizia eskaini dionari, eska diezaiogun sufritzen duten guztien alde. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienak eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienak, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egigun otoitz.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrean goستن zaitu eta adoratzen zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxopena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. ✠ Amen.

IV. EUKARISTIAREN LITURGIA

Eukaristi otoitza hasi aurretik

Orain iristen gara Gau santu honen bihotzera: Jesus piztua gurekin izango da ogi-ardotan.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua, pazko-sakramentuez ase gaituzunok zure maitasunean bat eginik bizi gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

V. BUKAERA

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. Eta zure espirtuarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak
Pazko-festaburu honetan
eta zaindu, erruki handiz, bekatu-bide guztietatik. *℟*. Amen.

Bere Semearen piztueraz biziberritu zaituzten Jainkoak
eman diezazuela betiko biziaren saria. *℟*. Amen.

Jaunaren nekaldiko egunak igaro ondoren
Pazko-festaburua ospatzen duzuenok,
irits zaitezte haren laguntzaz
zeruan betiko pazko-jaietara. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

Martxoaren 31n
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA

Agurra

Jesus piztuarekin hitzekin agurtzen zaituztet: Bakea zuekin!

Sarrerako oharpena

Atzo gauean, Pazko Gaubeila santua ospatzean entzun genuen Ebanjelio mezua oihartzun bezala ari da oraindik: «Ez dago hemen: Piztu da». Kristo bizi dela gogorarazten digu; Gugatik piztua izan dela. Hori dela Ebanjelioaren muina. Jainkoak baietz esan dio bere Semearen eskaintzari, eta heriotza desegina geratu da betiko!

Jesus Piztua gure artean dugula, ospa dezagun pozez Eukaristia.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Pozez beterik, Kristoren garaipena ospatuz, kanta dezagun zeruko eta lurreko Elizarekin batean Jainkoaren aintza.

Otoitza

Oi Jainko, egun honetan,
heriotza garaitu duen zure Seme bakarraren bidez,
betiereko biziaren ateak zabaldu dizkiguzu;
egizu, gure Jaunaren piztuerako festaburua ospatzen dugunok,
zure Espirituak eraberriturik, biziaren argira piztu gaitzela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen testigantza entzungo dugu orain bi irakurgaietan. Jesusen piztueraren berri ematen duen Pedorena eta Bataioaz Kristoren Piztueran parte hartu dugula esaten digun Paulorena. Biak ditugu Elizaren oinarri eta on egiten digu bere hitz bizkortzaileak.

Lehenengo irakurgaia (Eg 10, 34a. 37-43)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina

Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesussek berak agindu zigun herriari predikatzeko eta aitortzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiak bekatuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

Eta agindu zigun, herriari erakuts geniezaiola eta aitortu, Bera dela Jaungoikoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak egiten diote aitormen: Harengan sinesten duten guztiak hartzen dutela, Beraren izenean, bekatuen barkamena».

Erantzun-salmoa (Sal 118 [117], 1-2. 15c-16a eta 17. 22-23)

Hau e - gu - na au, Jau - nak e - gi - na, gu -
re po - za ta gu - re a - tse - gi - na.

- ∞. Eskerrak Jaunari, **ona** baita,
haren maitasuna betiko**a** baita.
Esan bezate israe**l**darrek:
haren maitasuna beti**u**koa. ∞.
- ∞. «Jaunaren eskuinak indarrez joku**ka**tu du,
Jaunaren eskuina guztiz gara**ia** da».
Ez naiz hilko, ez, bizi**u** baizik,
Jaunaren egintzak kontat**u**tzeko. ∞.

∇. Etxegileek baztertutako **harria**
giltzarri gertatu da.
Jaunak egin **du** hori,
gure begien **harrigarri**. ∇.

Bigarren irakurgaia (Kol 3, 1-4)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eseria. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Edota: (1 Ko 5, 6b-8)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Ez al dakizue legami apur batek ore guztia harrotzen duela? Bazter ezazue legamia zaharra, eta izan ore berri, legamiagabeko pazko-ogiak bezala; izan ere, horixe zarete, Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskainia izan denez gero. Ospa dezagun, beraz, Pazko-jai, ez legamia zaharrarekin, bekatuzko eta gaiztakeriazko legamiarekin, legamiagabeko pazko-ogiekin baizik, hau da, bihotz-garbitasunez eta egiaz.

Aleluia (1 Ko 5, 7b-8a)



∇. Kristo gure Pazko **Bil**dotsa

opari eskainia izan da;
ospa dezagun Pazko-jaia. ☩.

Ebanjelioa (*In 20, 1-9 edota, arratsaldean: Lk 24, 13-35*)

Homiliarako argibideak

1. Giza bizitza kontuan hartzen ez duen heriotzaren kultura batean bizi garela esaten da. Milaka lagun hiltzen dira egunero miseria, gosea, gerrak, injustizia, krimen antolatua direla eta. Albisteeak, tsunami batek bezala guztiontzako gizarte justuak eta gizatiarrak eraikitzeko itxaropen guztiak suntsitzen dituzten alderdi horiek baino ez dituzte nabarmentzen. Mundu globalizatu bateko egitura sozial, ekonomiko eta politikoetan islatzen den bekatu pertsonalaren eta bekatu sozialaren errealitatea da. Heriotza-kultura bizi-kultura bihurtzeko saiakera guztiek talka egiten dute giza egoismoarekin, maitatzea eta barnetik aske izatea eragozten baitigu eta gizarteari bidezkoa eta anaitasunezkoa izatea eragozten baitio. Zapalkuntza, miseria, indarkeria eta giza morrontza mota guztiak sortzen dituen gizartea.

2. Kristoren piztuerak itxaropen-aukerak irekitzen dizkigu eta heriotzaren kultura gainditzera bultzatzen gaitu. Berak martxan jarri du barneko eta gizarteko esklabotasunak gainditzeko aukera. Horien sustraia bekatua da, eta Berak gainditu du bere heriotzarekin eta piztuerarekin. Horregatik, ez dugu beldurrik izan behar, aingeruak emakumeei esan zien bezala, hori bera esan zien Kristok beldurrik ez izatera gonbidatu zituenean. Kristoren piztuera ez da iraganeko errealitate bat soilik. Kristo esklabotza guztietatik eta beldur guztietatik askatuz bizi da, gizaki berri eta erabat askeak bihurtzeko, Bera bezala, gure piztueraren zorionean. Era berean, Jesus munduaren eta historiaren bihotzean egoteak bermatzen digu gure

heriotza-gizarteak, azkenean, «zeru berriak eta lur berria» izango direla behin betiko askatuak eta adiskidetuak.

3. Ebanjelioko emakumeek eta apostoluek bezala, bizi dugun munduan bilatu behar dugu Jaunaren presentzia; gauza guztietan presente eta eraginkor dagoela ikasi. Hor ageri da. Ongia, edertasuna, eskuzabaltasuna, adiskidetasuna, elkartasuna bere presentziaren ezaugarriak dira. Bizi- eta piztuera-txinpartak bezalakoak dira. Bere bizitzarekin eta mezuarekin harremanetan jartzen gaituzten ebanjelioetan ere aurki dezakegu Kristo piztua; Berarekin lotzen gaituen eta senidetasuna sortzen duen eukaristian; gure senideetan, bereziki pobreetan eta behartsuetan, horiekiko harremanean probatuak baikara. Era berean, Piztua aurkitzen dugu Berak bere Espirituarekin eragiten dituen ezaugarrietan: elkartasunean, munduko justizia eta askapen asmoetan; hainbeste pertsonaren borroka eta sufrimenduetan. Piztu den Kristoren presentzia sentitzeaz gain, besteei itxaropen-mezu alai horren berri eman nahi diegu. Kristok bizi dela eta askatzen gaituela eta gure itxaropena dela hitzez eta bizimoduarekin adieraziz.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

—Kristori, bere piztueraz heriotza Elizaren Buru eratua izan denari, eska diezaiogun, bere maitasunez, eman diezaiela zoriona, poza eta alaitasuna bere garaipena ospatzen dutenei. Egigun otoitz.

- Kristori, bere piztueraz gure piztueraren atea zabaldu dituenari, eska diezaiogun alai dezala oraindik bere garaipena ezagutzen ez duten gizakiak eta Ebanjelioaren bidez poztu ditzala herri guztiak. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz mundu osoa alaitu duenari, eska diezaiogun berri dezala gure espiritua eta eman diezagula bere garaipenean parte hartu eta bizi berrira pizteko itxaropena. Egigun otoitz.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrian goستن zaitu eta adoratzen zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxaropena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Pazko-pozez eskaintzen dizugu, Jauna, sakrifizio hau, honek sortzen baitu eta janaritzen harrigarriro zure Eliza. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez *℟.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Oi Jainko, zaindu zeure Eliza maitasun handiz, pazko-sakramentuez biziberriturik piztueraren argira irits dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟.* Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 35. orrialdean*)

Apirilaren 7an
II. PAZKO IGANDEA, Pazko zortzigarrena
«Jainkoaren Errukiaren» igandea

Agurra

Jesu Kristo Piztuaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaur igandea da. Eta Pazko egunean bezala, gaur ere Jesus gure artean agertuko da. Hemen da, gure artean dugu: Bera mintzatuko zaigu, Bera emango zaigu ogi-ardotan. Guri, noski, apostoluei bezala, pozik eta alai egotea dagokigu. Apur bat erreparatuz gero, bere Espiritua gudan nabarituko dugu, eta ziur egon, maitasunezko eta bizitza berrizko notizia hau hots egitera bidaliak sentituko gara meza honetan.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gaitzala.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Bataioko uretan gizaki berri eginak izan diren guztiekin batera gora dezagun Jainko Aita-Semea-Espiritu Santua.

Otoitza

Beti errukior zaren Jainkoa,
pazko-jaietan suspertu egiten duzu zeure herriaren fedea;
indar ezazu gugan Zeuk emandako grazia,
hobeto uler dezagun,
nolako Bataioaz garbitu gaituzun,
nolako Espirituaz biziberritu
eta nolako odolaz erosi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 4, 32-35*)

Apostoluen Eginak liburutik

Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten. Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak.

Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrik edo etxerik zutenek saldu egiten zuten, eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

Erantzun-salmoa (Sal 118 [117], 2-4. 15c-16a 17-18. 22-24)

Es-ke-rrak Jau-na - ri, Ha - ren mai-ta-su - na be-ti-ko-a bai - ta.

- ∞. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna **beti**koa.
 Esan bezate aarondar apaizek: haren maitasuna **beti**koa.
 Esan bezate Jaunari begirune **di**otenek:
 haren maitasuna **beti**koa. ∞.
- ∞. «Jaunaren eskuinak indarrez jokatu du, ‘
 Jaunaren eskuina guztiz **garaia** da».
 Ez naiz hilko, ez, bizi baizik, ‘
 Jaunaren egintzak kont**at**zeko.
 Gogor zigortu **nau** Jaunak,
 baina ez nau heriotzara **er**aman. ∞.
- ∞. Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. ‘
 Jaunak egin du hori, gure begien **harr**igarri.
 Hau da Jaunaren egintza-**eg**una,
 poztu gaitezen eta alaitu **ha**rengan. ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Jn 5, 1-6)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen oro Jainkoagandik jaio da, eta bizia ematen duen Jainkoa maite duenak harengandik

jaioa ere maite du. Beraz, Jainkoa maite badugu eta haren aginduak betetzen baditugu, badakigu Jainkoaren seme-alabak maite ditugula. Izan ere, Jainkoa maitatzea haren aginduak betetzea da. Eta haren aginduak ez dira astunak, Jainkoagandik jaio den orok garaitu egiten baitu mundua. Eta hau da munduaren gain garaipena ematen diguna: gure sinesmena.

Zein da mundua garaitzen duena, Jesus Jainkoaren Semea dela sinesten duena baizik? Hau da bataioko uraz eta heriotzako odolaz etorri zena, Jesu Kristo; ez uraz bakarrik, uraz eta odolaz baizik. Eta Espiritua da honetaz aitormen egiten duena, Espiritua egia baita.

Aleluia (Jn 20, 29)



℣. Ikusi nauzulako sinetsi al duzu, Tomas? –dio Jaunak–: zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak. ℟.

Ebanjelioa (Jn 20, 19-31)

Homiliarako argibideak

Pazko ondorengo Jesusen agerpenak, zortzi egunetik behin kontatzen zaizkigu. Ikasleak otoitzean ari zirela, Jesus, haien erdian.

Bi mila urteren ondoren, zortzi egunetik zortzi egunera, hutsik egin gabe, kristauek Jaunaren eguna ospatzen jarraitu dute! Igandero! Jesus hila eta piztua elkartearen erdian presente dagoela sinetsiz.

Zeinen garrantzitsua den elkarte bateko kide garela benetan sentitzea, benetan sinestea. Ez gara kristau bakarka!

Kristau izatea ez da Jainkoaren eta nire arteko gauza bat bakarrik. Pertsonala bai. Baina bakarkakoa ez.

Tomas, elkartean ez zegoena, fedean ahul sentitu zen. Elkartean jaso dugu fedea. Elkartean bizi dugu. Eta elkartetik gara bidaliak, berri ona zabaltzera. Bereziki eta nagusiki, behartsuenei eta ezinduenei, bizitza erraztera.

Tomas ez zegoen han, eta ezin zuen sinetsi. Jesusek eman zion, ordea, horretarako bidea. Agertu zion, partekatua den fedearen indarra. Eta ondoren, zauriak erakutsi zizkion: munduko zauriei begiratzuz kristauak sumatu behar duelako Jainkoak aukeratu eta bidaltzen gaituela. Ene Jauna eta ene Jainkoa sumatu zuen Tomasek.

Aldarera goaz orain, gure pazkoa berritzera. Jainkoak lagun diezagula elkarrenganako bidean.

Homiliarako argibideak

1. Gizakiaren asmo sakonenetako bat, banakakoa nahiz gizartekoa, bakea da. Askotan esaten da bakea izateko gauza askori uko egiteko prest nagoela. Hau ez da tentsiorik edo gatazkarik ez izatea bakarrik, pertsonaren barru-barrenera sartzen da eta bere oinarria Jainkoa da. Gizartearen ikuspegitik, gaur egun, asko hitz egiten da bakeaz: Nazio Batuen Erakundeak bakerako deia egiten die gerran dauden nazioei; estatu buruek bilerak egiten dituzte gero gauzatzen ez diren bake-elkarrizketak izanik; gerrak sortzen dira armak saltzeko edo garatzeko bidean dauden herrialdeen aberastasunak eskuratzeko. Bakea aldarrikatzen da, baina justiziarekiko eta giza duintasunarekiko konpromisorik gabe. Joan Paulo II.ak honela zioen: «bakearen izena gaur justizia da».

2. Kristoren Pazkoa –heriotzatik bizira igarotzea– ondasun guztien iturria da. Gaurko ebanjelioan, Kristok bere bakea eskaintzen digu, ez da munduak ematen duena bezalakoa, bake prekarioa, azalekoa, faltsua. Jesusek komunikatzen duen bakeak justizia eta senidetasuna ditu oinarri. Adiskidetzearen emaitza da. Horregatik, Jesusek adiskidetzera bidaltzen ditu ikasleak: «bekatuak barkatzen dizkietenei barkatuta geratzen zaizkie». Beharrezkoa da elkar barkatzea eta adiskidetzea, eta Kristok piztuak posible egiten du hori. Jainkoarekin adiskidetzen gaitu eta penitentziaren sakramentua barkameneko erritu pribatua ez dela ulertzea garamatza. Dimentsio soziala ere badu, Jainkoarekiko adiskidetzearen bidez, senidetasuna bizitzeko bekatu pertsonal eta sozialak gainditzera bultzatzen baitu.

3. Jainkoarekiko komunioa benetako bakearen iturri da. Horrek ikusarazten digu maila guztietan saiatu behar dugula justizia eta senidetasuna lortzen. Ezer gutxi egin dezakegu bakearen dimentsioa soziala eta unibertsala denean, baina egin genezakeen gutxia egin behar dugu. Piztutako pospolo batek gutxi argiztatzen du estadio ilun batean, baina ehun mila elkartzen badira, argi bizia sortzen da. San Frantziskorena dela esaten den esaldiak zer egin dezakegun adierazten du: «Jauna, egin nazazu zure bakearen zerbitzari. Gorrotoa dagoen tokian, nik maitasuna jar dezadala. Iraina dagoen tokian barkamena eska dezadala. Liskarra dagoen tokian, nik batasuna jar dezadala. Akatsa dagoen tokian, nik egia jar dezadala. Zalantza dagoen tokian, nik fedea jar dezadala. Etsipena dagoen tokian, nik itxaropena jar dezadala. Ilunpea dagoen lekuetan, nik argia jar dezadala. Tristura dagoen tokian, nik poza jar dezadala». Mezan bakea ematen dugunean, pentsatzekoa da keinu horrek Kristoren bakea bizitzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu arazten digula, Hori baita benetako bakea.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!



En - tzun, Zuk Kris - to, he-ri ho - nen oi-hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatua desegin duenari eska diezaiogun, kristau guztiak izan daitezela leialak Pazko gau santuan berritutako bataioko hitzekin. Egiogun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz barkamena eta bakea eman digunari, eska diezaiogun, biziaren bidera itzuli direnek gorde ditzatela Aitaren errukiak itzuli dizkien dohainak. Egiogun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egiogun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienari eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienari, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egiogun otoitz.

Iganderoko pazkoan salbamenaren harrigarriak bizarazten dizkiguzun gure Jainkoa, entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu asma dezagula beti Kristo senideen artean aurkitzen, haiekin batera Kristo Zure Semearen testigantza eman dezagun. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Lehenengo Pazko hartan bezala, Jesus hemen dugu gaur ere. Lehen bere hitzean eman zaigu; orain, ogi-ardotan. Gure bihotzen hondohondotik eskertu dezagun Aita Jainkoa.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, onez, zeure herriaren
[eta bataiatu berrien] eskaintzak,
Zuganako fedez eta Bataioaz biziberriturik,
betiereko zoriona lor dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, egizu,
pazko-sakramentuetan hartu dugun graziak
iraun dezala beti gure bihotzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 35. orrialdean*)

Apirilaren 14an
3. PAZKO IGANDEA

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristo Piztua gure artean dago egiaz. Ezagutu dezagun batzarraren erdian; entzungo dugun Hitz ederrean; elkarbanatuko dugun Ogi bizian. Eta eraman dezagun gero gurekin, goazen toki guztietan Kristoren bizia izan dadinugar eta bultzagarri.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Oi Jainko, poztu dadila beti
biziberritu eta gaztetu duzun zure herria;
egizu, zure seme-alaba ordeko izatea
berreskuratu izanaz pozturik,
usterik sendoenaz itxaro dezagula piztuera-eguna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri
dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak,
egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 3, 13-15. 17-19)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Pedrok honela hitz egin zion herriari: «Abrahamen,
Isaaken eta Jakoberen Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak, aintzaz bete
du Jesus bere zerbitzaria, zuek agintariei eskura eman eta Pilatoren
aurrean ukatu zenuten hura, honek askatzea erabaki zuen arren.
Santua eta Zuzena ukatu zenuten, eta hiltzailea askatzeko eskatu;
biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen
artetik; geu gara horren testigu.

Badakit, senideok, ezjakinean jokatu zenutela zuek, baita zuen
agintariak ere. Baina horrela bete zuen Jainkoak, profeta guztien
ahoz aurrez iragarria, hots, haren Mesiasak sufritu egin behar zuela.
Bihotz-berri zaitezte, beraz, eta itzuli Jainkoagana, bekatuak ken
dakizkizuen».

Erantzun-salmoa (*Sal 4, 2. 7. 9*)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be - re be - ti - ko e-rru - ki - a.

- ∞. Deitzen dizudanean, erantzun, Jainko, ene defenddatzaile. Estualdian emadazu lassaitasun. Erruki zakizkit eta entzun nire otoitza. R̃.
- ∞. Jakizue maitasun harrigarria agertzen didala la Jaunak, entzun egiten didala deitzen diodanean. R̃.
- ∞. Asko ari dira esaten: «Nork emango guri zorriona?» Aldendu egin duzu gugandik, Jauna, zeure aurpegi argitsua! R̃.
- ∞. Bakean oheratzen naiz eta berehala lokartzen, Zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziarazten. R̃.

Bigarren irakurgaia (*1 Jn 2, 1-5*)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Jainkoa ezagutzen dugula honetatik dakigu: haren aginduak betetzetik. «Nik ezagutzen dut Jainkoa» esan eta haren aginduak

betetzen ez dituen gezurria da, eta horrelakoagan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenagan, berriz, Jainkoaren maitasuna bere betera iritsi da egiaz.

Aleluia (Ik. Lk 24, 32)



∞. Jesus Jauna, ager guri Liburu Santuak;
sutu gure bihotzak hitz egiten diguzunean. ∞.

Ebanjelioa (Lk 24, 35-48)

Homiliarako argibideak

Adimena ireki zien

Zenbait eleberri irakurtzea edo pelikula ikustea zail gertatzen da, pertsonaiak ulertzeko behar adina datu ematen ez dizkigunean. Jesusen ikasleei ere ulergaitza gertatu zitzaizen maisuaren historia. Haren heriotzak eta piztuerak **zur eta lur** utzi zituen. Piztua ikusi zutenean ez ziren ezagutzeko gai. Mamuren bat zela ere pentsatu zuten. Irudi berria zuen Jesusek piztu ondoren.

Irakurtzen zituzten Liburu Santuek, hasieran behintzat ez zien lagundu. Ez dugu harritu behar, gu ere ulertu ezinik gertatzen garenean. Historia asko dago Biblian. Jesus da, ordea, adimena ireki ziena, Eskritura Santua ulertzen laguntzen diguna. Jesus Liburu Santua **ulertzeko giltza**. Jesusek argitzen gaitu, Liburu Santu osoaren helmuga bere piztuera dela ulertzeko. Biblia ezin da Jesus gabe ulertu; ezta Jesus ere Bibliarik gabe.

Apostoluak jokoz kanpo bezala gertatu ziren. Espirituaren argitan, ordea, dena garbiagoa zen. Jainkoaren egitasmoak bazuen zentzua. Hainbat pertsonaiaren egitekoa ere ulergarriago gertatzen zen historia honetan. Jainkoa, izan ere, gai da **lerro okerretan ere zuzen idazteko**. Jesus piztuagan adiskidetu du Jainkoak mundua eta denok deitzen gaitu bihotz berria izatera. Ez dago zalantzarik. Ez dago beldurrik. Ez dago mamurik. Jaun piztua gure artean da, bizirik.

Elkartean bilduak zeudela argitu zien Jesusek adimena Liburu Santua ulertzeko. **Elkartearen baitan** ulertzen dugu Jainkoaren Hitza, ez bakoitzak bere kontura. Elkarerik gabe galdu egiten gara. Elkartean jaso dugu Hitza, elkartean topo egin dugu Jesus Piztuarekin, elkartetik eta elkartearekin goaz Berri Ona iragartzera. Pertsonala da Jesusekin topo egitea, noski! Baina Eliz elkartean gertatzen da.

Ikasleentzat ez zen nahikoa izan Jesusek aurrez piztuera aipatzea. Beharrezkoa izan zen Jaun Piztua presente sumatzea. Jesusekin izandako **otorduak**, oso argigarri izan zitzaizkien. Hitzek eta egintzek bat egiten dutenean ezagutu daiteke Jesus Piztua. Elkarrekin jaten dugunean konturatzen gara Jesus gurekin dela.

Jesusek ez zien adimena ireki testu batzuk ulertzeko, **Bere bizitza uler zezaten** baizik. Bere aginduak betetzen dituenak bakarrik ezagutu dezake egiaz. Ogia elkarrekin zatitzeak lagun diezagula gure etorkizunari bidea zabaltzen dion Jesus Piztua ezagutzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senide maiteok, beti gure alde otoitzean ari den Kristori, bekatuaren eta heriotzaren garaileari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Kristok, Jaunak, fededunen bihotzak beregana ditzan eta haien gogoak sendotu, zeruko ondasunak bila ditzaten, han baitago Bera Aitaren eskuinaldean. Egigun otoitz.
- Kristok, kreazioaren nagusiak, herri guztiei bere agerraldietan ikasleei eman zien bake bera eman diezaien. Egigun otoitz.
- Kristok, heriotza desegin duenak eta gaixotasun ororen sendagile denak, ahulez eta zorigaitzekoez erruki izan dezan eta mundutik gosea, gerra eta gaitz oro urruntzen lagun diezagun. Egigun otoitz.
- Kristok, Jaunak, gure elkarte bedeinka dezan eta Bere garaipena ospatzera gaur bildu garenoi bakea, alaitasuna eta atsedena eman diezagun. Egigun otoitz.

Jainko Jauna, gure bekatuengatik eskainia izan zen Zure Semearen garaipenean jarri duzu adiskidetzearen eta bakearen oinarria; entzun Zure Elizaren otoitzak, eta egin gaitzazu Zure maitasunean baketutako gizadi berriaren ezaugarri eta legami. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Mezako otoitz nagusira goaz: esker ona eta gorapena dario. Kristo berak Ogia zatituko du guretzat. Kristo bera emango zaigu janari.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, zure Elizak bozkarioz ekarritako eskaintzak eta, horrelako poza eman diozunez gero, emaiozu fruitutzat betiko zoriona.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Begira bihotz onez, Jauna, zeure herriari
 eta, betiereko biziaren sakramentuetan eraberritu duzunez,
 egizu, irits dadila
 aintzaz beteko den haragiaren piztuera hilezkorrera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bere Semearen piztueraz salbatu
 eta bere seme-alaba egin zaituzten Jainkoak
 poztu zaitzatela bere bedeinkapenaz. *℟*. Amen.

Bere erospenez egiazko askatasuna lortu dizuen Kristok
 eman diezazuela betiko oinordekotza. *℟*. Amen.

Zuen sinesmena aitortuz,
 Bataioan Kristorekin piztu zaretenok,
 orain zintzo bizi izanez,
 lor dezazuela zeruan Harekin bat egitea. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

Apirilaren 21ean
4. PAZKO IGANDEA

Bokazioen alde otoitz egiteko Mundu Jardunaldia
Misio herrietako bokazioen jardunaldia

“Egin bedi zure nahia. Guztiok ikasle, guztiok misiolari”

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren Piztuera ospatzen jarraitzen dugu eta gaurkoan Beraren Artzain on izateari begiraten diogu. Berak zaintzen gaitu, berak babesten. Badakigu zenbat egin duen gure alde!

Gaur, Bokazio aldeko Mundu jardunaldia dugu: **“Egin bedi zure nahia. Guztiok ikasle, guztiok misiolari?”** goiburuarekin. Eta, gainera, Misio herrietan apaiz izateko prestatzen direnei laguntzeko eskaintzen dugu otoitza eta diru-bilketa. Munduko bazter guztietan izan daitezen Kristo Artzain onaren irudi izango direnak.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.
 Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.
 Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 eraman gaitzazu zeruko pozetan partaide izatera, fededunen artalde apal hau hel dadin
 beraren artzaina, heriotza garaiturik, iritsi den ospera.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 4, 8-12)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, gaur, gaixo bati eginiko mesedea dela eta, noren eskuz sendatu den galdetzen diguzue; bego, beraz, argi zuentzat guztiontzat eta Israel herri osoarentzat, zuek gurutziltzatu eta Jainkoak hilen artetik piztu zuen Jesu Kristo Nazaretarraren izenean duzuela gizon hau zeuen aurrean sendaturik. Jesus hauxe da

zuek, “etxegileok, baztertutako harria, giltzarri gertatua”. Honengan bakarrik dugu salbamena, ez baitigu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkipean, gu salba gaitzakeenik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 118 [117], 1 eta 8-9. 21-23. 26 eta 28-29)



- ∞. Eskerrak Jaunari, ona baita, ‘
haren maitasuna betikoa baita.
Hobe da Jaunagan babestea ‘
gizakiaz fidatzea baino;
hobe Jaunagan babestea
handikiez fidatzea baino. ∞.
- ∞. Eskerrak Zuri erantzun didazulako, ‘
nire salbatzaile izan zarelako.
Etxegileek baztertutako harria ‘
giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri. ∞.
- ∞. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! ‘
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituztegu.
Zu zara nire Jainko, eskerrak Zuri! ‘
Gora Zu, ene Jainko hori!
Eskerrak Jaunari, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita. ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Jn 3, 1-2)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalako ikusiko baitugu.

Aleluia (Jn 19, 14)

V. Ni naiz artzain ona, dio Jaunak;
ezagutzen ditut neure ardiak,
eta neureek ezagutzen naute Ni. R̄.

Ebanjelioa (Jn 10, 11-18)**Homiliarako argibideak**

Ezagutzen naute nire ardiek

Bizitzari begiratzeko kristau ikuspegia lausotzen den heinean, gero eta zailago gertatzen da gizakiari buruz eta bere bokazioari buruz mintzatzea. Gehienek uste dute, baita fededun askok ere, bokazioaren hori apaiz eta monjen kontua dela. Ahaztu egiten zaigu, gizaki oro, fededun nahiz fedegabe bizi garenez gero, munduan egiteko batekin gaudela, bokazio batekin. Horixe da, izan ere,

bakoitzak bere baitan itxi gabe besteen zerbitzura jartzeko, besteentzat emana bizitzeko era.

Bakoitzaren bokazioa da, elkarteari geure burua eskaintzeko ere, eliz elkarteari, gizarteari, bizi dugun egoerari. Horregatik, bokazioaren funtsa zerbitzua da, gure kasuan, Jainkoak zerbitzurako egiten digun deia. Norentzat gara, egin gaituen Aitarentzat ez bada, salbatu gaituen Kristorentzat ez bada eta, santutzen gaituen Espiritu Santuarentzat ez bada?

Izan ere, Jesusek, Artzain Onak, gugatik bizia ematen duenak gogoberotzen gaitu, bere bizi bera bizi dezagun. Berarengan aurki dezagun egiazko zorionaren, salbamenaren, iturria. Berak aberasten gaitu bere hitzez Aitaren deia “entzun, bereizi eta bizitzeko”.

Bokazioaren erroan dago fedea: sinestea norbere buruaz ahaztea da, erosotasunak utzi eta gure bizitzaren erdi muin Kristo aitortzea. Bokazioa egintza zehatzak baina harago doa: egintzak lotzen eta zentzuz betetzen dituen, eragiten dituen da bokazioa, deia. Kristau izateko era pertsonala da bokazioa: dena delakoa izan gure bizi era konkretua, guztietan sentitu behar gara deituak eta bidaliak.

Kristau bokazioa, erakartzen duen maitasun-deia da, geure baitatik ateratzen gaituena, bidean jartzen gaituena. Dei horri erantzutea ez da kontu pribatua edo intimista; ez da emozioei erantzunez martxan jartzea. Deia konpromisoa da, bete-betea, egiazkoa. Jainkoaren Erreinua munduan gauzatzeko konpromisoa. Aitari begiratzetik sortzen den bokazioa, senideei begira gauzatzen da: kontenplazioak garamatza egiazko karitatezko bizitzara. Hori da kristau bokazio guztien oinarria. Eukaristia elkarrekin ospatzeak sendo gaitzala Kristori jarraitzeko bokazioan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gure begiak Kristori, gure arimen artzain dugunari zuzendurik, jar ditzagun Haren eskuetan konfiantza osoz, gizakien beharrak:

Erantzuna: Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Gotzainek, apaizek eta diakonoek zintzo zain dezaten beren eskuetan jarriak izan diren kristau elkarteak. Egigun otoitz.
- Era guztietako bokazidunen alde: jakin dezatela Berari jarraitzera eruki-begiradaz deitu zien Jaunari erantzuten. Egigun otoitz.
- Jesu Kristok ikasleei emandako bakea gure munduan errotu dadin eta herri guztietatik alden daitezen gorrotoak eta gerra guztiak. Egigun otoitz.
- Gaixoek, behartsuek eta sufritzen duten guztiek Kristo piztuarengan aurki ditzaten argia eta itxaropena. Egigun otoitz.
- Jainkoak kristau familietan sakonera begira jartzen gaituen Espiritua isur dezan, elizaren ministeritza ezberdinetarako bokaziodunak erne daitezen. Egigun otoitz.

Jainko Jauna, Aita ahalguztiduna, ezinduari osasuna ematean Kristo piztuaren argia ikusarazi zenuen; batu itzazu zeure familia bakarrean bekatuak sakabanatzen dituen gizakiak, eta egizu, Zure artaldeko kide izateaz poztu daitezela Kristo, Artzain onarekin bat eginik. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Egitera goazen diru-bilketa, Misio herrietako apaiz bokaziodunei laguntzeko izango da.

Oparigaien gaineko otoitza

Eskerrak ematen dizkizugu beti, Jauna,
pazko-misterio honengatik;
egizu, etengabe gertaberritzen ari zaren gure erospenak
ekar diezagula betiereko poza.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Artzain Ona, zaindu maitasunez zeure artaldea;
eta eraman betiko larre gurietara
zeure Semearen odol baliotsuaz salbatu dituzun ardiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 56. orrialdean*)

Apirilaren 28an
5. PAZKO IGANDEA

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaur, Jaunaren promesa betetzen da gure artean: «Nonahi nire izenean bildurik zaudetela, han nago ni zuen erdian». Berarekin bat egiten dugu horrela, Berak gurekin bat egiten duen moduan. Inoiz baino presenteago egiten da Jesus Jauna Eukaristian: suma dezagun,

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
burutu ezazu gudan beti pazko-sakramentua,
Bataioaren bidez biziberritu dituzunak
zure laguntza eta babesari esker fruitu ugari eman dezaten;
eta egizu, betiko biziaren zorionera hel daitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Lehen kristau elkarteak, Pazkoaren esperentziaz nola sortu ziren ikusten dugu igandez igande aldi honetan. Ikus ditzagun geure elkarterako beharrezko ditugun jarrerak zeintzuk diren.

Lehenengo irakurgaia (Eg 9, 26-31)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Saulo, Jerusalemera iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen; baina beldurra zioten denek, ez baitzuten sinesten benetan ikasle zela.

Orduan, Bernabek Saulo berekin hartu eta apostoluei aurkeztu zien. Kontatu zien nola ikusi zuen Saulok Damaskora bidean Jauna, nola mintzatu zitzaion Jauna eta nolako ausardiaz hitz egin zuen Damaskon Jesusen izenaz. Ordutik, apostoluekin batera ibili ohi zen Saulo Jerusalem, Jaunaren izenaz ausardiaz hitz eginez. Greko-hizkuntzako juduekin ere hizketan eta eztabaidan jarduten zuen; baina hauek Saulo hiltzeko asmotan zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eramane zuten eta handik Tarsora bidali.

Eliz elkarteak bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; Jaunaganako leialtasunean bizi zen, eta eraikiz eta ugalduz zihoan, Espiritu Santuagandiko adoreari esker.

Erantzun-salmoa (*Sal 22 [21], 26b-27. 28. 30abcd. 30e-32*)



- ∞. Beteko ditut neure promesak begirune diotenen **aur**rean.
Asetzeraino jango dute beh**h**artsuek,
goretziko dute Jauna beraren bila dab**il**tzanek.
Bizi bedi zuen bihotza **bet**iko! ∞.
- ∞. Oroituko dira eta Jaunagana **it**zuliko
lurreko herri **guz**tiak,
haren aurrean ahuspezt**u**ko dira
herrietako familia **guz**tiak. ∞.
- ∞. Haren aurrean ahuspezt**u**ko dira
lurpean lo dauden **guz**tiak,
haren aurrean mak**u**rtuko
hilobiko hautsera **jai**tsiak. ∞.
- ∞. Ni, ordea, harentzat biziko naiz, ‘
nire ondorengoek Jauna zerbitzat**u**ko dute,
hartaz hitz egingo diete datozen giz**al**diei,
haren salbamen-egintza iragarriko **di**ote
sortzeko dagoen herriari: «Horrela jokatu **du** Jaunak». ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Jn 3, 18-24)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Ene seme-alabok, ez dezagula hitzez eta ahoz maita, egitez eta egiaz baizik. Horrela jakingo dugu egiarenak garela, eta lasaituko dugu geure barrua Jainkoaren aurrean; gure barruak errudun garela esaten badigu ere, gure barrua baino handiagoa da Jainkoa, eta dena ezagutzen du.

Ene maiteok, barruak errudun garela esaten ez badigu, uste osoa dugu Jainkoagan. Eskatu ahala guztia hartzen dugu Jainkoagandik, haren aginduak betetzen baititugu eta hari atsegin zaiona egiten. Eta hau da haren agindua: haren Seme Jesu Kristoren izenean sinetsi eta elkar maita dezagula, hark agindu zigun bezala. Haren aginduak betetzen dituen Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan. Honela dakigu gurekin dagoela: eman digun Espirituaren bidez.

Aleluia (Jn 15, 4a. 5b)



℣. Zaudete Nigan, Ni zuengan bezala, **di**o Jaunak;
norbait Nigan badago, horrek fruitu asko **emango** du. ℟.

Ebanjelioa (Jn 15, 1-8)

Homiliarako argibideak

Fruitua duen aihen oro, inausi

«Ni naiz benetako mahatsondoa, eta aita mahastizaina da. Nigan fruiturik ematen ez duen oro, inausi egiten du fruitu gehiago eman dezan».

Bere iraskaspenean, Jesusek askotan ateratzen ditu kontu ezagunak entzuten diotenentzat, denen aurrean zeuden gauzak. Oraingoan mahatsondoaren eta aiheneen irudiarekin hitz egingo digu.

Jesusek bi kasu azaldu ditu. Lehena, ezkorra: aihena lehor dago, ez du fruiturik ematen, eta, beraz, moztu eta bota egin behar da; bigarrena, baikorra: aihena bizirik eta osasuntsu dago oraindik, eta, beraz, inausi egin behar da. Kontraste horrek esaten digu inausketa ez dela aihenaren kontrako zerbait. Mahastizainak oraindik asko espero du harengandik, badaki fruituak eman ditzakeela, konfiantza du harengan. Gauza bera gertatzen da espirituari dagokionean. Jainkoak gure bizitzan gurutzearekin esku hartzen duenean, ez du esan nahi gurekin haserre dagoenik. Justu kontrakoa baizik.

Baina mahastizainak zergatik inausiko du aihena? Arrazoi simple batengatik: inausi ezean, mahatsondoaren indarra alferrik galtzen delako, agian behar baino fruitu gehiago emango du, eta denak ez dira helduko edota ardoaren emaitza ez da nahi bezalakoa izango. Inausi gabe, mahatsondoa sasi bihurtzen da eta ez du behar bezalako fruitua ematen.

Gauza bera gertatzen da gure bizitzan. Bizitzea aukeratzea da, eta aukeratzea uko egitea da. Bizitzan gauza gehiegi egin nahi dituen edo interes eta zaletasun ugari lantzen dituen pertsona sakabanatu egiten da; ez da ezertan nabarmenduko. Hautatzeko gaitasuna beharrezkoa da, bigarren mailako interes batzuk alde batera utzi eta lehen mailako beste batzuegan kontzentratzeko. Inausteko!

Hori are egiazkoagoa da bizitza espiritualean. Santutasuna eskulturaren antzekoa da. Leonardo da Vincik honela definitu zuen

eskultura: «kentzearen artea». Beste arteek zerbait jartzen dute: kolorea pinturan mihisean, harria arkitekturan, nota jarria musikan. Eskulturan bakarrik kentzen da: soberan dauden marmol-zatiak kentzea, artistak buruan duen irudia sor dadin. Perfekzio kristaua ere horrela lortzen da, alferrikako puskak kenduz, hau da, leku guztietan sakabanatzen gaituzten desioak, nahiak, proiektuak eta joera propioak kenduz.

Egun batean, Miguel Angelek, Florentziako lorategi batean paseatzen ari zela, marmolezko bloke bat ikusi zuen izkina batean, erdi lur-azpian, belarrez eta lokatzez estalia. Begira geratu zen, norbait ikusi izan balu bezala, eta berarekin zeuden lagunengana jo zuen: «Marmolezko bloke horretan aingeru bat dago sartuta; kanpora atera behar dut». Eta zizelez armatuta hasi zen bloke hura lantzen, aingeru eder baten irudia sortu zen arte.

Jainkoak ere begiratu eta horrela ikusten gaitu: harrizko blokeak oraindik formarik gabeak bagina bezala, eta honela dio: «Hor barruan izaki berri eta eder bat dago ezkutatuta, argira ateratzea espero duena; are gehiago, nire seme Jesu Kristoren irudia ezkutatuta dago [gu «semearen irudia birsortzera» bideratuta gaude (Erm 8, 29)]; kanpora atera nahi dut!». Orduan, zer egiten du? Zizela hartzen du, gurutzea, eta lanean hasten da; inausteko guraizeak hartzen ditu eta lanean hasten da. Normalean, berak ez dio ezer gehitzen bizitzak berez sufrimendua, nekea eta ezinak dituenari; gauza horiek guztiak gure garbiketarako balio izatea besterik ez du egiten. Alferrik ez galtzen laguntzen digu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Bidea, egia eta bizia den Kristori dei egin diezaiozun, eta apaiz-herri garenez, aurkez diezazkiogun munduaren beharrak:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-ri ho - nen oi-hu - a.

- Kristok, Elizaren senarrak, pazko pozez bete ditzan bere erreinuaren alde diharduten guztiak. Egigun otoitz. R^{z} .
- Kristok, egiazko giltzarriak, ebanjelioaz argi ditzan bere piztueraren berri ona ezagutzen ez duten herri guztiak. Egigun otoitz. R^{z} .
- Kristok, egiazko goiz-argiak, atsekabetuen negarrak entzun eta sufritzen duten guztien minak arindu ditzan. Egigun otoitz. R^{z} .
- Kristok, egiazko testiguak, lagun diezagula ebanjeliozko-pozez, bere heriotzaren garaipena ezagutzen ez dutenentzat osasun eta argi izaten. Egigun otoitz. R^{z} .

Jainko Jauna, Kristorekin bat egin gaituzu egiazko mahatsondoaren ahienak bezala; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure Espiritu Santua, elkar maitatuz santutasun eta bakezko fruituak eman ditzagun. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. R^{z} . Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, sakrifizio honetako harreman miragarrirei esker, zeure jainkotasun bakar eta gorenean parte izateko grazia ematen diguzu; egizu, sinesten dugun egia egintzetan aitor dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R^{z} . Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 56. orrialdean*)

Maiatzaren 9an
6. PAZKO IGANDEA

Gaixoen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jauna gure artean dagoela jakinik bildu gara geure senideok. Senide izate horretan sakondu nahi dugu, gure arteko lokarriak sendotu, bidelagun garela ospatu. Gaixoen Mundu Jardunaldian otoitz berezia egingo dugu: Kristoren piztueraren indar salbagarria osasun eta zorion emaile gerta dadin.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Gora dezagun elkarrekin kantatuz, biziaren sortzaile dugun Jainkoa.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik piztu den gure Jauna goresteko
gogotsu ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna
bete dezagula beti geure egintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̄.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Maitasuna dohaina da, gure gizatasuna berritzen duen dohaina. Maitasun hori gordetzea, eta maitasun horren arabera bizitzea, gizaki bete eta zoriotsu izateko bide bikaina dugu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 10, 25-26. 34-35. 44-48)

Apostoluen Eginak liburutik

Behin batean, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetan ahuspeztu. Baina Pedrok zutiarazi zuen, esanez: «Altxa zaitez, gizaki hutsa naiz ni ere».

Orduan, honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere».

Artean Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen hitza entzuten ari ziren guztien gainera. Pedrorrekin etorritako fededun juduak txunditurik zeuden Espiritu Santuaren dohaina jentilen

gainera ere jaisten zela ikustean. Izan ere, hizketa arrotzez hitz egiten eta Jainkoa handiesten entzuten zieten.

Orduan, esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataia zitzatela agindu zuen. Ondoren, egun batzuetan bertan gelditzeko eskatu zioten Pedrori.

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3ab. 3cd-4)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
 a - gan - di - ko ga - rai - pe -

- ∞. Kanta Jaunari kantu **berria**,
 egintza harrigarriak egin **baititu**;
 garaipena eman dio bere **eskuin**ak,
 bere beso **santu**ak. *℞.*
- ∞. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
 bere salbamen-egintza agertu nazioen **aur**rean.
 Ez da ahaztu bere maita**tas**unaz,
 Israel herriari dion leial**tas**unaz. *℞.*
- ∞. Munduko bazter guztiek ikusi**du** dute
 gure Jainkoaren gara**rai**pena.
 Egin irrintzi Jaunari, lur **oso**a,
 egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nu. *℞.*

Bigarren irakurgaia (1 Jn 4, 7-10)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita.

Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekatuen barkamen-oparizat bidali izatean.

Aleluia (Jn 14, 23)

Al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu - ia.

✠. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, **dio** Jaunak;
nire Aitak maite **izango** du,
eta Aita **eta** biok
harengana etorri**ko** gara. ✠.

Ebanjelioa (Jn 15, 9-17)

Homiliarako argibideak

Pozetarako aukeratuak

Erlijioez eta hitz egiten dugunean, sarri entzuten da esaten, erlijioa bizitzea eta zein erlijio bizi nor bakoitzak bere aukerara daukan

zerbait dela. Pertsona bakoitzaren eskubidea izanik, bakoitzari bere aukera errespetatu behar zaiola. Eta nik ez dut ezetzik esango, noski. Nola esan ezetz, erlijioa giza eskubide oinarrizkoa izanik? Bakoitzak ikusi behar du zertan sinetsi eta nola sinetsi.

Baina, ikuspegi horren azpian, bada zerbait nik nire fedearekin ongi uztartu ezin dudana. Esan diezaioket norbaiti nik kristau izatea aukeratu dudala, katoliko izatea eta molde honetan sinetsi eta bizitzea. Baina, sakonera jota, nik ezingo nuke hori horrela esan. Nik, sentitzen dudana adierazteko, beste hau esan beharko nuke: Jesusek aukeratu nau, Jesusen Jainkoak aukeratu nau, eta nik sinetsi egin dut. Aukeraren subjektua aldatuko nukeela, alegia. Niretzat, alderdi horretatik, erlijioa ez da nik aukeratu dudana zerbait, baizik Jainkoarekiko harremanean aukeratua sentitu naiz.

Hau guztia esaten dut, gaurko ebanjelioak aipatzen duen horri erreparatuz: «Ez nauzue zuek ni aukeratu, nik aukeratu zaituztet zuek». Badaukat errezelo gordea, ez ote den aukera honen kontzientzia gure elizetan falta duguna. Ez dugula geure bizitza aukera pertsonal baten erregalutzat ikusten eta hartzen. Erlijioa halako gune ezezagun batetik gainera erori zaigun meteorito baten antzera ikusten dugula. Hemen jaio garelako, beti horrela egin dugulako, gure historia den bezalako izan delako...

Eta gero aukera pertsonal horren bizipoza falta zaio gure fedeari! Aukera pertsonal horrek bere barnean daraman maitasun-ukitua falta zaio. Eta ez gaitu gure fede horrek bizipozten. Gure elizkizunak ez dira festazko gertaera. Gure sakramentuak ez dira ezer askoren adierazgarri. Eta dena sentidu gabetu egin zaigu geure ohiturakeriaren esku aspertuetan. Eta ez dakigu gure kristau-elkartek nola berritu eta nola sutu. Ez dakigu nola sor daitekeen biziera berritu baten eragin gaztetzaila. Eta gehiena ilun, triste.

«Honetaz hitz egin dizuet, nire poza zuengan izan dadin, eta zuen poza bete-betea izan dadin». Hau da bokazioa, oinarrizko bokazioa,

maitasunezko aukerari dagokion biziera: poza. Eta pozaren eskasiak eraman beharko gintuzke gure kristau-fedearen barrenak aztertzerara. Zergatik galdu dugu kristau izatearen biziera pozgarria? Zergatik ikusten da hain poz gutxi gure ospakizunetan? Zergatik etsi dugu? Zerk eusten zion orain arte gure sinesmenari? Ez ote zaigu barruko esperientzia sakona hustu?

Nik niretzako daukat maitasunezko aukera horren kontzientziak bakarrik eraman gaitzakeela pozik bizitzera. Beste gauza askok ere ematen dute poza. Baina Ebanjelioko pozaz ari naiz. Eta poz berezi hori ezertatik zintzilik baldin badago, honetatik dagoela esango nuke: neure bizitza Jainkoak aukeratu eta maitatu duela jakitetik. Gauzak era batera edo bestera egin, ez da berdin; zintzoa izan edo ez dakit nolakoa izan, ez da berdin; baina benetako poza ez dago gure gauzetatik zintzilik. Benetako pozaren giltza ez daukagula, alegia, guk, Jainkoak baizik.

Eta Ebanjelioa horregatik da Berri On, Jainkoak aukeratu gaituela esaten digulako; Jainkoak maitatu gaituela errepikatzen digulako. Eta horretatik pozten zaigu bihotza, gertatuak gertatu. Horretatik espero dugu barkazioaren berregitea. Aukera pertsonal horren kontzientziak ematen digu inork kenduko ez digun barne-poza. Eta gaur gure elkarteak berritu nahi ditugunean, uste dut ez genukeela adarretatik hasi behar, sustraitik baizik. Eta sustraia, esaten ari naizenez, uste dut Jainkoaren esperientzia pertsonala lantzea dela. Horretarako atera behar dugu behar adina adore eta baliabide, beste guztiak ez baikaitu berritze eder baten oinarrira eramango. Gu, pozetarako aukeratuak izan gara!

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Aitari, beti gure alde ari den Kristorekin bat eginik:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Hilik egon ondoren, orain betirako bizi denak, eman diezaiola Elizari sendotasun eta ausardiaz Bere piztueraren testigu izatea. Egigun otoitz. R^{z} .
- Apostoluei bere bakea eman zien Jaun Piztuak, eman diezaiela bake bera herrialde guztiei. Egigun otoitz. R^{z} .
- Heriotza garaitu zuenak, bihur dezala gaixoen, hiltzorian daudenen eta ezinean dauden guztien nekea, inork kenduko ez dien egiazko poz. Egigun otoitz. R^{z} .
- Zeruko erreinuaren giltzak dituenak, eman diezagula egunen batean bere piztuera zeruko mahaian ospatzea. Egigun otoitz. R^{z} .

Jainko Jauna, Zuk maitatu gaituzu gu lehenengo Zure Semea bidaliz, Berari esker bizi gaitezen; entzun gure otoitzak eta egizu, Espiritu Santuaz beterik, ikas dezagula elkar maitatzen Kristok maitatu gaituen bezala. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. R^{z} . Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Igo bitez Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskaintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospa ditzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R^{z} . Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren piztueran;
ugari itzazu gudan pazko-sakramentuaren fruituak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 56. orrialdean*)

Maiatzaren 12an
JAUNAREN IGOKUNDEA

Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren Igokundea ospatzen dugu gaur. Gaurkoa dugu Pazkoko beste gertaera nagusia: Jesus Aitarengana goratua ikusten dugu, aintzatsu eta garaile. Kristorengan gertatua gertatzen zaigu: geure pozetan eta minetan altxatuak, piztuak, suspertuak gertatzen gara.

Egun honetan Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia ere ospatzen da. Otoitzean gogoan izan ditzagun komunikabide munduan lan egiten duten guztiak, egiaren aitorle izan daitezen; eta, bereziki, komunikabide kristauetan dabiltzanek, Ebanjelioa hots egin dezatela, Elizaren batasuna jorratuz.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.
 Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.
 Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, zure Seme Jesu Kristoren Igokundea garaipen gertatu da guretzat,
 eta haren gorputzeko garenok ziur itxaro dugu,
 gure buru denak duen aintza izango dugula geuk ere;
 egizu, egia honek bete gaitzala pozez eta esker onez.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Jainko ahalguztiduna,
 sinesten dugu, zure Seme bakarra, gure Salbatzailea,
 zeruetara igo zela gaurko egunez;
 egizu, izan dezagula guk ere geure gogoia zerutar gauzetan.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusengan, Jainkoaren gudanako asmoa eta Jainkoa bera ikusten dugu. “Zuekin izango naiz beti”, gurekin da beti eta itxaropenez bizitzen erakusten digu.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 1, 1-11*)

Apostoluen Eginak liburutik

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoan izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzaizen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko froga asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanaz eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Erantzun-salmoa (*Sal* 47 [46], 2-3. 6-7. 8-9)

Lur o-so-a, e-gi-o-zu i-rrin-tzi Jain-ko-a-ri.

- ∞. Herri guztiok, jo ezazu e txalo,
 egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari,
 izugarria baita Jauna, Goi-goikoa,
 mundu osoaren errege handia. Ṙ.
- ∞. Irrintzi artean igo da Jainkoa,
 turuta-soinuz Jauna.
 Kanta Jainkoari, kanta,
 kanta gure erregeari, kanta. Ṙ.
- ∞. Jainkoa da mundu osoaren errege,
 kanta trebeki hari.
 Jainkoa nazioen errege da,
 Jainkoa bere tronu santuan dago eseria. Ṙ.

Bigarren irakurgaia (*Ef* 1, 17-23)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena.

Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean.

Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

Edota:

Ef 4, 1-13 [] kako artekoa utz daiteke

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitezela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarritz.

Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohaina. [Horregatik dio Liburu Santuak: «Gorenera igo zenean, gatibuak berekin eramane zituen eta gizakiei dohainak eman zizkien». Igo zela esatean, zer esan nahi du, aurrez beheko lur honetara jaitsi zela baizik? Jaitsi zen hura, zeru-gorenera igo zena bera da dena betetzera.]

Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hots-egile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren

Semearen sinesmen eta ezagutza berbera izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

Aleluia (Mt 28, 19a-20b)

Al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu - ia.

✠. Zoazte eta egin herri guztiak nire ikasle,
dio Jaunak,
 eta Ni zeuekin izango nauzue egunero
 munduaren azkena arte. ✠.

Ebanjelioa (Mk 16, 15-20)

Homiliarako argibideak

Itzuliko da, joaten ikusi duzuen bezala

Jesus ez da hildako bat. Historiaren bihotzean eta gutako bakoitzaren bizitzan presente dagoen norbaita. Kristau izatea ez da irakatsi onekoa zen iraganeko pertsona bat begirunez begiratzea eta gure gaurkotasuna bizitzeko egokitze jotzea. Kristau izatea Kristorekin topo egitea da, bizi arazten gaituen bere Espiritua onartzea eta hori elkarrekin bizi eta ospatzea da.

Mateok ez digu Igokundeari buruzko kontakizunik utzi. Nahiago izan du fededunen bihotzean Piztuaren azken hitz hauek uztea: Zuekin nauzue munduaren azken era arte. Hau da egiazko fededunaren euskarri nagusia: Jesus Piztua gure bizitzako lagun dela jakitea eta sinestea.

Egunez egun, gurekin dugu Bera gure bihotzeko ezinak indartuz eta Jainkoa gutako bakoitzaren bizitzan norbait gertukoa dela gogoraraziz. Hor da bera, gu gaitzak, ezinak eta itxaropenik ezak jota gera ez gaitezen. Gure izatean berak argitzen digu, ez dela indarkeria eta gorrotoa, maitasuna baizik, gizon-emakumeari heriotzaz gaindi bizitzen laguntzen dion goreneko indarra.

Berak ziurtarazten digu, inolako minik ez dela amaiezina, ez dela bueltarik gabeko hankasartzerik, ez dela barkatu ezineko bekaturik, ezta azkeneko hitza duen zorigaitzik ere.

Berak, itxaropen neurrigabea eskaintzen digu, errealitatea begi onez eta uste onez begiratzera itxia dagoen mundu honetan. Gure bizitzak zentzarazten ditu Berak, bizi baldintza ugariak eskaini bai, baina zertarako bizi behar dugun esaten ez duen gizartearen erdian.

Berak laguntzen digu benetako zoriona bilatzen, gauza asko eskaini bai, baina benetako zoriona non bilatu erakusteko gai ez den zibilizazio honetan.

Beragan dugu, maitasuna garaile izango denaren ziurtasuna. Goibeltasuna ez zaigu zilegi. Itxaropenik ezak ez luke gugan tokirik izan behar.

Fede honek, ez gaitu sufrimendutik aldentzen, ez dizkigu gauzak errazten. Baina fede hori da egunero bizitzaz, maitasunez eta itxaropenez bidean jartzen gaituen ezkutuko laguntza. Jesus Piztua gurekin dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Begira diezaiogun Kristo, gure Apaiz Nagusiari, eta eska diezaiogun lagun diezagula zerutik gizakien aldeko beharretan:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Kristok, bere aintzaren errege-aulkitik, lagun diezaiola munduaren erdian ari den Elizari, eta lagun diezaien fededunei zeruko ondasunak maitatuz mundukoak erabiltzen. *R̄*.
- Kristok, lurrean jasoia izatean denak berarengana erakarriko zituela agindu zuenak, ager diezaiela bere izena oraindik ezagutzen ez duten guztiei. *R̄*.
- Kristok, bere garaipenaz Aitarekin bat egin gaituenak, bete ditzan itxaropenez era guztietako minak nozitzen dituzten guztiak. *R̄*.
- Kristok, zerura jasoia izan denak, isur dezala guregan Espiritu Santua egiazko zerbitzari izan gaitezen munduaren erdian. *R̄*.

Jainko Aita ahalguztiduna, Kristo Zure Semea piztu duzu eta gauza guztien Jaun egin duzu; emaguzu, fedez eskatu duguna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Apalki eskaintzen dizugu, Jauna, sakrifizio hau zure Semearen Igokunde aintzatsua ospatzen dugun egun honetan; egizu, misteriozko harreman santu honen bidez, berarekin batean zerurako piztu gaitezela. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̄*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 lur honetan bertan
 zerutar ondasunetan parte izatea ematen diguzu;
 egizu, gure kristau-gogoak jo dezala
 gure izatea Zurekin bat egina dagoen leku hartara.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak
 Jesus zerura, zuei lekua prestatzera,
 igo zen egun honetan. *℟*. Amen.

Piztu ondoren ikasleei agertu zitzaaien Jesu Kristo Jauna
 mundua epaitzera etorriko denean
 ager dakizuela epaile errukitsu. *℟*. Amen.

Jesu Kristo Aitaren ondoan jarririk dagoela
 sinesten duzue;
 pozik senti dezazuela
 zuekin ere badagoela azken eguna arte,
 berak agindu zuenez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Maiatzaren 19an **PENTEKOSTE IGANDEA**

Agurra

Kristo piztuaren bakea izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Gaur, Jesus piztuak Aitarengandik isurtzen digun Espiritu Santuaren etorrera handikiro ospatuz, burutzen ditugu Pazkoko jaiak. Maitasunaren jaia da hau: elkar ulermenaren maitasuna, gure elkarteak eraberritzeko behar dugun Maitasuna, biziaren Maitasuna.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gaitzkieon.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Aitaren eta Semearen arteko dohain den Espirituaren bizi-pozez, gorets dezagun Hirutasun santua Aintza zeruetan kantatuz.

Otoitza

Oi Jainko, gaur ospatzen dugun misterioaren bidez herri eta nazio guztietan santutzen duzu zeure Eliza osoa; isur itzazu Espiritu Santuaren dohainak mundu zabalera eta berri itzazu orain fededunen bihotzean Ebanjelioa hots egiten hasi zirenean errukiz egin zenituen mirariak. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusen Piztuera bizi izan zuten haiek, Espiritu Santua onartzen dute beren bizitzan. Sakabanatzea eta beldurra, batasun eta bihotz zabal bihurtzen dira, Mezua mundu guztira hots egiteko.

Lehenengo irakurgaia (Eg 2, 1-11)

Apostoluen Eginak liburutik

Pentekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuten. Orduan, suzko mingainak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemen judu jainkozalerik asko, zerupearan diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarak, mediarak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

Erantzun-salmoa (*Sal* 104 [103], 1ab eta 24ac. 29b-30. 31 eta 34)

Zu - re ar-na - sa bi - dal gu - ga - na ta lur - a - za - la be -
 rri - tu, Jau - na. Zu - -rri - tu, Jau - na.

- ∞. Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna!
 Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
 Bai ugariak, Jauna, Zuk e**gin**ak!
 Zure sorkariz betea da**go** lurra. ℞.
- ∞. Zuk arnasa kendu, eta hil e**gite**n dira,
 hauts izatera **itz**ultzen.
 Zuk arnasa bidali, eta berriro sort**zen** dira,
 berritu egiten duzu **lur**bira. ℞.
- ∞. Izan bedi betiko Jaunaren **os**pea!
 Poztu bedi Jauna bere e**gine**tan!
 Atsegin bekio n**ire** kanta,
 Jaunagan izango dut ne**ure** poza. ℞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 12, 3b-7. 12-13)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

Edota:

Ga 5, 16-25


San Paulo Apostoluak Galaziarrei egindako gutunetik

Senideok: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez grina txarrei jarraituz. Giza grinak Espirituaren aurkakoak dira eta Espiritua giza grinen aurkakoak. Bi indar horiek elkarren aurka dabilta; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. Espirituak gidatzen bazaituzte, ez zaudete legearen menpe.

Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, zikinkeria, nasaikeria, idolatria, sorginkeria, etsaigoa, haserrea, bekaizkeria, gorrotoa, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak, ikusiezina, hordikeria, sabelkeria eta horrelakoak. Eta lehen esan nizuena diotsuet berriro ere: horrela jokutzen dutenek ez dute Jainkoaren erreinua ondare jasoko.

Espirituaren fruitua, berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz ona, onginahia, leialtasuna, otzantasuna, bere buruaren jabe izatea. Ez da legerik horrelakoak gaitzetsiko dituenik. Eta Kristo Jesusenak direnek gurutzean hilarazi dute bekatuzko beren giza izaera, bere gurari eta grinekin. Bizia Espirituak ematen badigu, jokatu ere joka dezagun Espirituaren arabera.

Aleluia



✠. Zatoz, Espiritu Santu,
bete ezazu zeure fededunen bihotza,
eta piztu haiengan zeure maite-sua! R

Ebanjelioa (Jn 20, 19-23)

Homiliarako argibideak

Bakoitzak bere hizkuntzan entzuten zieten

Zailtasun handiak ditugu fedea belaunaldi berriei transmititzeko. Kontua ez da propaganda-mezu bat bidaltzea soilik, baizik eta gure garaiko pertsonak **Jaun berpiztuaren esperientzia kristauan** sartzeko gai izatea.

Espiritu Santuaren etorrerari esker izan zen posible ikasleen iragarpena; izan ere, euren beldurretatik askatu eta eraldatu zituen irteteko beldurrez etxean sartuta zeuden apostoluak (Jn 20,19-23). Hala, plazan agertu eta Jaun berpiztuaren lekukotza emango dute. Geuk ere gure beldurrak eta lotsa faltsuak gainditzeko garaia da,

kristautasunetik urrundu diren gure lagun askoren artean Jainkoaren gaia ateratzeko garaia. Gero eta garbiago ikusten da **familian bizi behar dela fedea**, transmitituko bada. Familiak ez badu bizipen hori babesten, berniz hutsa izango da haurren katekesia, eta, batzuetan Jaunartzea egin orduko desagertzen da. Espero dezagun familia kristauak euren seme-alabak kristautasunean hezteko euren misioaz jabetu daitezen. Betebehar hori onartu zuten euren seme-alabentzat bataioa eskatu zutenean.

Espirituari esker, hizkuntzen, kulturen, herrien eta erlijioen oztopoak gainditzen dira. Espiritua ez da Elizaren monopolio. Denon bihotzean eragiten du. Baina Jainkoarengandik datozen eta Jesusek agertu dituen Espirituaren dohainak pertsona guztiei eramatea da Elizaren zeregina. Hura da Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren bat egitean bildutako komunitatea. Dohainak eta karismak eman dizkigu sinestun guztioi, Kristoren gorputza eraikitzeko. Horrela, **batasunean txertatzen du aniztasuna** (1 Ko 12, 3-13).

Gure munduan, kontrakoak diruditen mugimenduak ikusten ditugu. Europan batez ere, integrazioa eta estatu nazionalen mugan gainditzea bilatzen da; aldi berean, baina, gero eta autogobernu modu handiagoak eskatzen dituzte hainbat herrik. Ez da erraza bi joera horiek bateratze eta harmonikoki antolatutako gorputz baten orekari eustea. Espirituak historiako mugimendu handiak animatzen baditu ere, pertsonen bihotzean zentratzen da eta Jainkoaren seme-alaba egiten ditu. Hura da gure bihotzaren auhenak eta izena apenas jartzen dakigun antsiak interpretatzen dakiena. **Gizaki zehatzaren duintasuna** dago jokoan, pertsona zehatzak erantzuten baitio Jainkoaren ekintzari Espirituaren bitartez. Pertsonak jasotzen du Espiritua, pertsonak bizi ditu bakea, poza eta barkamena.

Elizaren bidea, ebanjelizazioaren bidea, gizaki zehatz horren bitartez pasatzen da. Gizaki zehatza salbatu behar da. Gizakiek

Elizaren hizkuntza uler dezaten, gizaki zehatzarengana hurbildu behar du Elizak, horrek egoera zehatzera. Ezin du egiaren jabe den katedratik hitz egin, dagoeneko, **gizakien ondoan eman behar ditu urratsak**. Azken batean, maitasun errukitsuaren hizkuntza da gizaki guztien ulertzen duten hizkuntza. Hizkuntza horren zain daude errefuxiatu eta etorkinak. Hori da Eukaristian eragiten duen Espiritua, Jesusen misterioa guretzat gaurkotzen duena. Hark eman diezazkigula gure mundua ebanjelizatze indarra eta gogoia.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitz uste onez beterik, Kristo bitarteko dugula:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-ri ho - nen oi-hu - a.

- Aitaren eskuinaldean dagoen Jesus Jaunak, isur dezan ugari Elizarengan Espiritu Santua. Egigun otoitz. R^{X} .
- Espiritu Santuaren argiak, uxa ditzan gizakien ilunak, eraman ditzan egia ezagutzera, eta bihur dezan gorrotoa maitasun, sufrimentua poz, eta indarkeria bake. Egigun otoitz. R^{X} .
- Espiritu Santuaren indarrak sendo ditzala bihotz-berritzearen bidean ahul bizi direnak. Egigun otoitz. R^{X} .
- Jakinduriaren Espirituak murgil gaitzala Jainkoaren misterioan eta Kristok irakatsi diguna etengabe gogoratuz sendo dezala gure fedea. Egigun otoitz. R^{X} .

Entzun, Jainko Ahalguztidun, Aita-maitasunez, herri honen otoitzak, pozik jaso baitu lehen-dohain bezala hitz emandako Espiritu Santua. Zurekin eta Zure Semearekin errege bizi dena gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak iragartzen duena Eukaristiaren mahaian gertatu egiten da. Espiritu Santua eskatuko dugu orain ere eta Aitak isuriko du elkarte honetara, Jesusen gurutzeko eskaintza aldare honetan gertaberritzerakoan.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Espiritu Santuak ager diezagula argiago sakrifizio honen misterioa, zure Semeak hitzeman bezala, eta eraman gaitzala, bihotz onez, hark agertutako egia bete-betean ezagutzera Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zuk ematen dizkiozu Elizari, Jauna, zeruko dohainak; zaindu ezazu beragan Zeuk emandako grazia; indarberri ditzala gudan beti Espiritu Santuak berak guri emandako dohainak, eta hartu dugun janari santuak eraman gaitzala salbamenaren betera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. ℞. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Argi guztien Aita den Jainkoak
ikasleen gogoak argitu zituen gaurko egunez
Espiritu Santua isuriz;
poztu zaitzatela bere bedeinkapenaz
eta aberastu bere Espirituaren dohainez. ℞. Amen.

Ikasleen gainera harrigarriro agertu zen suak
garbi ditzala zuen bihotzak gaitz guztietatik
eta edertu bere argiaren distiraz. ℞. Amen.

Hainbeste eratako jendea
fede beraren aitormenean bat egin zuen Espiritu Santuak
gorde zaitzatela fede berean,
eta orain zuentzat itxaropen dena
gerta dakizuela egunen batean egiazko ikuskizun. ℞. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℞. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
℞. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

1. ERANSKINA

PAZKO IGANDEA

Pazko-zuzia pizteko ohikunea

Bezpera arratsean Pazko Gaubeila ospatu ez den elizetan, Pazko-zuzia pizteko ohikune hau egin daiteke agurraren ondoren:

Kristau senide maiteok: Bart gauean, Pazko Gau santuan, kristauak dauden munduko bazter guztietan Kristoren piztueraren berri ona entzun da. Pazko Gau santuan, Pazko zuzia piztua izan da mundu guztian: zuzi hori Kristo piztuaren ezaugarri da. Pazko Gau santuan Aleluia abestu dute Jainkoarekiko gorespenez eta esker onez. Gure Elizan Pazko Gaubeila ospatu ez bagenuen ere, pazko-zuziak toki berezia izatea nahi dugu, bihotzaren eta espirituaren ilunak bere argitasunez argi ditzan. Horregatik Pazko-eguneko ospakizuna hasterakoan, handikiro eta jai-giroan piztuko dugu.

Jauna, zure izenean sagaratutako pazko-zuzi honek
argi egin dezala itzali gabe,
bekatuaren eta heriotzaren iluna suntsitzeko.

Argi honek, Kristo gogora ekar diezagula,
bera baita zure Seme Piztua, itzalik gabeko argia,
hilobitik zutituta gizadi osoarentzat distira egiten duena.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Pazko-zuzia piztu bitartean, abes daiteke sarrerako kantuaren beste zatiren bat edota beste kantu egoki bat («Jesus, munduko argia», adibidez).

2. ERANSKINA

PENTEKOSTE IGANDEA

Pazko-zuzia itzaltzea

Jaunartze ondorengo otoitza bukaturik, oraindik piztua dagoen pazko-zuzira hurbilduko da apaiza eta, argiaren liturgia prestatzeko, sarrera labur bat egingo du, honelatsu:

Apaizak: Senideok, Pazkoaldiko denbora pozgarriari, hau da, berrogeita hamar egunez luzatu den egunari, bizia eman dion gau hartan, gure argia Kristo dela aldarrikatu genuen, pazko-zuzia pizterakoan. Bidelagun izan dugu argi hau berrogeita hamar egun hauetan eta pazko-misterioaren handitasuna gogorarazi digu. Gaur, Pentekoste-egun honetan, Pazkoaldia bukatu delarik, itzali egingo dugu pazko-zuzi hau. Sinale hau gabe geldituko gara orain, izan ere, piztu den gure Maisuaren irakaspena hartu dugu pazko-eskolan eta Espiritu Santuaren dohainaz situak izan gara; horregatik, guk geuk izan behar dugu orain distiratsen duen «Kristoren argia»; munduan barrena gure senideen artean distiratsen duen zutabe argitsu izatera dei egiten zaigu, «agindutako lurraldera» garamatzen irteerako bidean senide horien gidari izateko. Liturgi urtean zehar, ikusiko dugu berriro pazko-zuziaren argi distiratsua, batez ere eliz bizitzako bi unetan: Bataioa dela-eta gure arteko seme-alabek biziko duten lehenengo Pazkoan, eta heriotza jasango dutenek, egiazko bizian sarturik, azkeneko Pazkoa ospatuko dutenean.

Kanta dezagun orain «Jesus, munduko Argia».

✠ **Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

Irakurleak: Zu zara zuzentasun-eguzkia, errainu bedeinkatua, lehenengo argi-iturria, gauza guztien gainetik biziki irrikatua;

indartsua zara, ulertezina eta adierazezina; ongiaren poza, betea izan den itxaropenaren ikuskaria; Kristo kreatzailea, goratua eta zerutarra, errege aintzaz betea, biziaren ziurtasuna: bete itzazu gure ahotsaren hutsuneak zeure Hitz ahalguztidunaz eta eskaini zeure Aita ahaltsuari gogoko izango zaion eskaritzat.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara Aitaren aintzaren ospea, egiazko argiaren distira zabaltzen duzuna, argiaren errainua, distira ororen iturria. Zu, eguna argitzen duen eguna; Zu, egiazko eguzkia, etengabe argi-izpiz beterik azaltzen zarena eta gure zentzuetan Espirituaren sugarra pizten duzuna.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara aitaren etxea apalki argiztatzen duen argi-zuzia. Zu zara zuzentasun-eguzkia, iluntzerik ezagutzen ez duen artizarra, goizeko izar argitsua.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara munduarentzat egiazko argi-emailea, eguzki betea baino argitsuagoa, erabateko argia eta eguna, gure bihotzeko zentzurik sakonenak argitzen dituzuna.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara nire begien argia, Jaun ezti, nire egunetako babesa: argitu, Jauna, nire bidea, Zu baitzara gau luzean nire itxaropen bakarra. Zu zara nire kriseiluaren sugar bizia, oi Jainko, nire argia.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Azkeneko gorapena abestu bitartean, apaizak itzali egingo du pazko-zuzia eta, jarraian, ondorengo otoitza esango du:

Apaizak: Oi Kristo, gure Salbatzaile ezitia, piztu itzazu gure argizuziak; egizu, argi egin dezatela etengabe zure tenpluan betiko argia zaren horrek indarturik; argitu daitezela gure espirituaren zoko ilun guztiak eta gugandik urrutiratuak izan daitezela munduko iluntasunak. Egizu, Zu ikusi, hausnartu eta bila zaitzagula, Zu bakarrik maita zaitzagula, Zu noiz etorriko itxaroten gauden bitartean. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

℟. **Amen.**

Azkenik, ohi bezala bedeinkapena eman ez bukatuko da Meza.